

Herririk Herri |4|
lurretan aisialdirako ortuak jarriko ditue Itur-buruko lursailean

Ekonomia |10|
Aldi baterako 13 lanpostu sortu ditue Durangoko Udalak eta INEMek



Berbaz |9|
Juan Jesús Díez: "Auzo elkartean bilgunea sortu gura dogu Durangon"

Trena lurperatzeko lanak urtebete atzeratuko dira

> Obrari hobeto eusteko jarritako egiturak lanak atzeratu eta garestitu ditu

> ETSren arabera, 2010aren bukaeran egongo dira amaituta lanak

3



Obrari hobeto eusteko egitura etxebizitzan "segurtasuna eta egonkortasuna arriskuan ez jartzeko" jarri dabe. K. Aginako

Antena kentzeko agindua betearazi daien eskatuz

Mañaria • Arrueta auzoan daukan telefonia antena kentzeko agindu eutson Udalak Vodafoni. Epea gaindituta, konpainiak agindua bete daian neurriak hartzeko eskatuko deusie auzotarrek Udalari.

2

Udan Chiapasera bidaiatzea sari

KULTURA • Euskadiko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundeak antolatzen dauen kazetaritza erreportajeen lehiaketa irabazi dau Julen Orbegozo kazetari gazteak. Udan Chiapasera bidaiatu eta Promedios proiektua ezagutzea da jaso dauen saria.

13

A. Intxaurreaga: "Liga hasi daiten desiatzen gagoz denok"

KIROLA • Axier Intxaurreagak entrenatuko dau aurten Durangoko Kulturala. Rikardo Txintxurreta kirol zuzendariagaz, zortzi fitxaketa egin ditu; inguruko jokalarik gazteak ezartzen ahalegindu dira.

25



FERIXA NAUSIKOAK
2009
Elorrio irailak 4 - 13

• **Elorrio**
Herriko euskarari buruzko ikerketa egingo dau Udalak

6

• **Atxondo**
Ur Partzuergoak herriko sei iturbururen jabetza hartu dau

8

• **Otxandio**
San Martin ermita inguruko pagadia handituko dabe

7

Bodegas Launa
Arabar Erlijioa

Launa plus
Ondua

www.bodegastauna.com info@bodegastauna.com Tel.: 94 682 41 08

HERRIRIK HERRI >

MAÑARIA

Amaitu da antena lekuz aldatzeko emon epea

Dekretu bitartez emondako agindua betearazi daian eskatzen deustie auzotarrek Udalari

Alboan dagoen terrenoetako herriko arau subsidiarioek zehazten dabengitxieneko 3 metroko distantzia errespetatzen ez dabelako, Arruetan auzoan daukan telefono mugikorren antena lekualdatzeko agindu eutsan Udalak Vodafone enpresari: telekomunikazioetarako gainerako antenak batzen dituen egituran kokatu daiala bere antena agindu eutseen azaroan kaleratu eta apirilean berretsitako alkatetza dekretuetan.

Epea bukatu eta bi hilabetera, antenak betiko lekuan jarraitzen dauela-eta, Udalak emondako agindua betearazi daian eskatzeko batzartu egin gura dabe Arruetako auzotarrek udalordez-

kariekin: emondako agindua eta herriko legedia betearazteko eskatuko deustie Udalari.

Anteneken osasunean eragiten dauen kalteari buruzko auzotarren ardura ez dabela antena orain dagoen lekutik 10 metrora lekualdatzeak konponduko dinoe, baina era berean garrantzitsua deritzoe Udalak emondako agindua betearazteari. Telekomunikazio torrea kokatzeko leku aprosagoak dagozela dinoe. ■ I.E.

Herriko arau subsidiarioek zehazten dabengitxieneko emondako agindua betetzeko eskatzen dabe arruetarrek



Antenaren auziagazko Udalaren asmoak ezagutzeko batzarra eskatuko dabe auzotarrek. J.F.

anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali



DURANGO

Lariz Dorreko egoitzan dihardu uda hasieratik Turismo Bulegoak

Beheko solairuan egokituko da Turismo Bulegoa; Durango Eraikitzen enpresa publikoa 1. solairuan

Udaldia amaitu arte itzarongo dabeinauguraziorako. Halanbe, etxe barrian dago jadanik Turismo Bulegoa, Lariz Dorrean. Bertan hasi dau abuztua, azken bost urteak Askatasun Etorbidean egin ondoren. Hor egindako azken egunetan jakin eragin zitueen urte hasieratik uztailearen 18a bitar-

Lariz Dorrea zaharbarritzeko beharretan 950.000 euro erabili ditu Udalak

Urte hasieratik uztailearen 18a arte, 5.626 kontsulta jaso zitueen Turismo Bulegoan, 2008an baino %10,30 gehiago

tean jasotako kontsulten datuakbe. Denera, 5.626 kontsulta jaso zitueen —1.583 bulegoan, 1.989 berezko ordezkari zedun azoketan eta 2.054 zerbitzu eta produktu turistikoen bitartez—, 2008an epe berean baino %10,30 gehiago, hain zuzen be.

XIX. mendea aurretiko ikuztegi publikoak be berreskuratuz, 950.000 euro erabili ditu Udalak Lariz Dorrea zaharbarritzen. Gogoratu daigun Durango Eraikitzen enpresa publikoa be etxe bereko 1. solairuan dela. Azken pisuan, erabilera askotarako gunea sortzea aurreikusi dabe. Behin-behineko izaeraz bada be, bulego-altzari eta errotulazino guztia egoitza barrira bideratzen hasteko aprobetxatuko ditue hileok, udal arduradunek azaldu dabenez. ■ A.B

Udal aldizkaria "autopropaganda" dela salatu dabe PSE-EEK eta PPK

Bai PSE-EEK bai PPK gogor salatu dabe kaleratutako azken udal aldizkaria. Biek ala biek "autopropaganda hutsa" dela salatu dabe, eta eskatu Juan Jose Ziarrusta alkate zenean kaleratzen zen aldizkarian legez "udal alderdi guztien eritziak jasotzeko aukera emotea".

Sozialisten berbetan, "EAJk bera lausengatzeko politikagaz darrai, eta diru publikoagaz zeozertan diharduen itxurak egiten". Informazio "partzialeko" aldizkaria editatzea "alde bakarrek" erabakia izan dela dinoe, eta faktura EAJko uri batzarrak bere gain hartzea eskatu dabe. PPK "oso larria" deritzo "autobonboa" egiteko erabiltzea eta "eurenak balira legez publizitatea emotea PPre proposamenak izan diren egitasmoei (karkabak atontzea, JAEDI eta Caritasi laguntza...)". ■ A.B.

Udalak karkabak gai biltegi legez erabiltzea salatu dau PSE-EEK

Udagoienean Alde Zaharreko karkabak atontzen hasi ahal izateko auzokide eta ostalariei karkabak husteko eskaera egin arren, Gobernu Taldearen "muturreko itzikeria" salatu dau PSE-EEK.

Udala "eredu izatea" eta karkabak "trasteleku" legez ez erabiltzea eskatu dabe

Administrazioak "eredu" behar dauela eritzi eta Tokiko Agenda 21ekoekin bisita egitean Udalak karkabak gai-biltegi legez erabiltzen zituela ikusita, "trasteleku" moduan erabiltzeari izteko eskatu eben; ez ei deutsee jaramonik egin. Garbitasun faltak ez eze segurtasun arazoak arduratzen ei dau PSE-EE. ■ A.B.



Trenaren lurperatzea Durango Operazioaren barruan ipini dabe martxan. Kepa Aginako

Trena lurperatzeko lanak 2010 arte atzeratuko dira

2009ko udazkenerako lanak amaituta egongo zirela aurreikusi arren, ETSk 2010eko amaierara atzeratu dau Durangoko trenaren lurperatzea

Urtebeteko atzerapena izan dabe trena lurperatzeko lanak Durangon. Eusko Trenbide Sareak-ek azaldu daenez, aurreikusi baino obra handiagoa egin behar izan dabe: "Obrari hobeto eusteko mikropilotedun pantaila bat jarri behar izan dogu, hatxean ainguruta". Aldaketa horrek, denboran eragiteaz gainera, inbertsinoa garestitu egin dauela gaineratu dabe.

Obra hori guztia inguruko etxebizitzaren "segurtasuna eta egonkortasuna arriskuan ez jartzeko" egin dabela azaldu dau ETSk, Aralar alderdiari trenaren

lurperatzearen inguruan egindako galderei erantzunez.

Durango Operazioa

Trenaren lurperatzea Durango Operazioa deitutako proiektuaren barruan jarri dabe martxan. Gelto intermodala, zentro komertziala, arkitektu ezagunek diseinatutako eraikinak eta 360 ibilgailuentzako aparkalekua egitea aurreikusi dabe. Gainera, Durangoko kotxerak Lebariora eroango ditue, eta Traña-Lebario tartea bibidertzeko lanei ekitear dagoz. Datorren urtean Euba-lurreta tartea bibidertzen jarraitzeko asmoa daukie. ■ J.G.

Obrari hobeto eusteko mikropilotedun pantaila bat jarri behar izan dabela azaldu dabe ETSko arduradunek

Aurreikusita zegoen epeen atzerapena eta inbertsinoa garestitzea eragin dau proiektuaren aldaketak

ALBORDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Amiandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

ALBORDI
prekozinak

A CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

DIURRETA

Itur-burun lotu dabe lurra ortu ludiko eta ekologikoendako

Udalbatzarrak 15.000 metro koadroko lursaila alokatzeko 10 urteko kontratua onartu dau; EAJk eta EB-Berdeek bakarrik egin dabe alde

Itur-buru inguruan 15.000 metro koadro inguruko lursaila alokatzeko 10 urteko kontratua onartu barri dau udalbatzarrak; Udalak gura dauenean eten ahal izango dau. Bertan, aisialdirako ortuak jarriko ditue, eta egitasmo hori aurrera eroateko 150.000 euro gordetue udal aurrekontuan. Urkiola landa garapenerako elkarteak sustatutako ortu ludiko eta ekologikoak sortzeko proiektuan lurretak ez eze beste bost herrik be badihardue: Abadiñok, Atxondok, Berrizek, Elorriok eta Zaldibarrek.

Hasieran, 5.000 metro koadro erabiltzea aurreikusitako dabe, premien arabera zabaltzeko. EAJ eta EB-Berdeek bakarrik egin dabe alde. Egitasmoaren kontra ez dagoela argitu ondoren, PSE-EEK "prozedimendu akatsa" egon dela salatu dau: "Idatziz ez dogu egitasmoaren inongo barririk". Eta 150.000

Egitasmoaren kontra egon ez arren, "prozedimendu akatsa" salatu dau PSE-EEK

PPren eritziz, egitasmo hori ez da "preminazkoa" eta "desordukoa" be baderitzoe

Egitasmoa preminen arabera lantzeko, lurra eskuratu gura izan dabela esan dau EAJk

euro gordetzeari larregi deritzoe, "beste batzuk 12.000 euro gaz hasi dira"; lursaila arrendatzeko "presa" edo "preminarik" ez dabe ikusten. PPK be ez deritzo "preminazkoa" eta "desordukoa" dela uste dau "hobetzetik urrin, txarrera doan egoera ekonomiko honetan" diru hori bideratzea. Proiektua "interesgarria" izan arren, dirua beste gai "pizuzkoagoetarako" gordetzea eskatzen ei dau egoerak.

"Onura soziala"

Egitasmoaren helburuen barri denek daukiela dino EAJk, eta pausoak emoteari garrantzitsua deritzoe: "Egitasmoa eztabaidatuko dogu datorrenean, ohi denez". Lurra eskuratu gura izan ei dabe, gero preminen arabera egitasmoa lantzeko. Proiektuaren "onura soziala" eta hainbat herritarren interesa nabarmendu ditue. ■ A.B.

Merkataritza erabilerarako azalera handitu dabe

Azalera erabilgarria 150 metro koadrotik 750 metro koadrorra zabaldu dabe, behin betiko

Merkataritza erabilerarako azalera handitu, eta industria eta 3. sektoreko jardun-uneetako erabilera osagarriak egokitzeko arau subsidiarioen aldaketa onartu dau, behin betiko, udalbatzarrak. Horrela, azalera erabilgarria 150 metro koadrotik 750 metro koadrorra aldatu da. "Legeak egokitu ahala bete behar barriak sortu dira —esaterako, irisgarritasunari jago-konez—, horren eraginez zehaztutako azalera txiki geratuz", azaldu dau Ainhoa Albizuri jarduneko alkateak. Horren aurrean, arauak egokitu gura izan ditue, lokal barria jarri edo dagoena handitzeko aukera emonez.

Helburu nagusi bi izan ditu Udalak: batetik, bizitegi-lurzoruan, etxabe-komertzialetan eta lokaletan azalera txikiko merkataritza gunek jartzea edo handitzea bultzatzea, Albizurik gogoratu dauenez komertzio eraikin independenteetan be egokitu den

arren araudia; bestetik, lurzoru urbanizagarrian —industriakoa, 3. sektorekoa zein erabilera orokorrekoa— edo hiri-lurzoruan, erabilera sozialerako zein atsegin hartzekorako dagoen hutsunea betetzea izan dabe helburu.

Erizpideak "bateratzeko"

Azken horregaz lotuta, jarduneko alkatearen berbetan, "batez be, industria poligono guztietako erizpideak erraztu eta bateratu" gura izan ditue. Gaur egun, bako-txak bere araudia dauka, sortu zireneko sasoiako legediaren arabera: "Esaterako, hainbatek kanpora jo behar dau bazkaltzeko aukerarik ez dagoelako". ■ A.B.

Lokal barria jarri edo dagoena handitzeko aukera emon guran, arauak egokitu ditu Udalak

Trafikoa mugatu dabe Bixente Kapanagan

Domeka eta jai egunetan trafikoari itxita dago Bixente Kapanaga, joan zen abuztuaren 9tik

Bixente Kapanaga kalea trafikoari itxita egongo da domeka eta jai egunetan. Joan zen abuztuaren 9tik aurrera dago indarrean neurri barria. Horretara, oinezkoendako mugatuta egongo da kalea, 10:00etatik 20:00etara bitartean.

Trafikoak ez dauka sartzerik, 10:00etatik 20:00etara bitartean, Bixente Kapanagan

Udabarrian 300 bat sinadura aurkeztu ziren Udalean, kalea oinezkoei mugatzea eskatuz

Halan jakin eragin dau Udalak. Amilburu plazara heldu baino apur bat aurrerago eta Askondo biribilguneraino egongo da itxita kalea.

Herritarren 300 sinadura

Joan zen udabarrian 300 sinadura inguru aurkeztu zitueen Udalean, barrizutako Bixente Kapanaga kalea oinezkoei mugatzeko eskatuz. Herri ekimenez sortutako eskaera izan zen hori. Zapatu eguerditik domeka arratsaldera bitartean proposatu eben kalea trafikoari ixtea.

Azkenean, neurria egun bakarera mugatzea erabaki dau; domeka eta jai egunetara, hain zuzen be. ■ A.Basauri



Udalak kalea egun bakarrean ixtea erabaki dau: domeka eta jai egunetan . A.Basauri

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

A Urria

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gatz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Binara Urreta Jainaga
PODÓLOGA 189. Erregidorea

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegiak

M^a JESUS LUQUE
• ileapaindegi unisexa •



Kurutziaga
9 behea
94 681 43 89
48200 Durango

Pilar Ruiz
• ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



- Pilar Ruiz
- Ileapaindegia dauka Sabecon

Udaren ondorioak

Zer arazo nagusitzen da sasoi honetan?

Gehien agertzen den arazoa tindatutako ilea hondatzea da. Batez be, emakumeetan emoten da arazo hori, eta konpontzera etortzen dira. Gaztaina koloreko tintea emon ebana hilehori etortzen da. Ilea beste sasoi batzuetan baino gehiago erortzen dela be aipagarria da.

Zerk eragiten dau?

Eguzkitan denpora asko emoten badogu gertatu leiteke hori, baita itsasoan sartzen bagara be. Eguzkiak, ilean daukagun produktu kimikoaren bitartez, ilearen ezkatak asko zabaltzen ditu. Kresalak, eguzkiagaz kontaktuan jartzen denean, tintean eragiten dau. Distira galtzea be ekartzen dau horrek. Luzeak diren ileetan emoten den kasua da honakoa, laburra denean gatxagoa da. Gainera, soluzinoa errazagoa da: ebaki eta kitto; hori egiten dabe gizonetzkoek.

Baina badauka konponbidea, ezta?

Hainbat produktuk egiten deusie aurre arazo horri, eta horreetan oinarritutako tratamenduak eskaintzen doguz; hidratazinoa, adibidez.

NUKLEO
ileapaindegia



myspace.com/pelukerlanukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 94

Adatz
• ileapaindegia •



- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zubiurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 620 06 28

Estetika Zentroak

Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalena diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1^aA-1^aC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 663 716 017

Ana Camarero
• apaindegia •

LASER • FOTODEPILAZIO • MEDIKO-ESTETIKOA

25. HILERO
• Aurpegi tratamendua
• Gorpuzko tratamendua
• Produktu espezializatua

25. ZOZKETA urteurrena

- Aurpegi garbiketa
- Argizari berotutako depilazioak
- Argizari espele depilazioak
- Depilazio elektrikoa
- Gorpuzko tratamenduak
- Solariuma
- Mesoterapia birtuala

Galenkale 14-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

FOTODEPILAZIOA

- Laser diodoa (azul beltzorrana)
- Alejandrita (ile argia)
- Neodimio Yag
- Argi pulsatu



DURANGO • Erreale kalea, 1 • Tel.: 94 621 39 29
GERNIKA • BARAKALDO www.fotodepilaser.com

Cristina Agirre
• apaindegia •



- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA beroa eta epela
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA
- MAKILAJEA
- MANIKURA • PEDIKURA
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER)

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Parafarmazia Dietetika

Amara



- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Anso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 94

ELORRIO

Elorrioko euskarari buruzko ikerketa egingo dau Udalak

12.000 euroko laguntza nori emon puntukako sistemaren bitartez erabakiko dabe; irailaren 28a artekoa da proposamenak aurkezteko epea

Udalak Elorrioko euskarari buruzko ikerketa-lana egiteko lehiaketa deitu dau. 12.000 euroko diru-laguntza lortu gura dauenak irailaren 28a arte dauka dokumentazioa aurkezteko aukera. Ikerketak herri hizkeren ahozko ondarea jasotzea dau helburu, gero herritarren artean zabaltzeko.

Lanari buruzko txosten zehatzaz gainera, eskatzaileak curriculuma be aurkeztu beharko dau proposamenean

Elorrioko Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira eskabideak. Lanari buruzko txosten zehatzaz gainera (lanaren ikerketa esparrua, metodologia, kronograma...), eskatzaileak

bere *curriculum vitae* eta zor obligazioak egunera dituela frogatzen dauen egiaztagiria aurkeztuko ditu, besteak beste. Laguntza nori emon puntutako sistema bitartez erabakiko dabe; puntuak banatzeko esparruen artean dagoz eskatzaileak aurkeztutako aurreproiektua, curriculuma eta gaiari lotutako ikasketak zein ikerlanak... Laguntza urtebeterako da, baina luzagarria jarraipen batzordeak halan erabakiz gero.

Taldeak be bai

Norbanakoez gainera, taldeak be aurkeztu leitez lehiaketara. Bigarren kasu horretan, taldeak ikerlanaren arduraduna izendatu beharko dau. Dena dela, taldean aurkeztuz gero, arduradunak ezeez gainerako kideek be gitxieneko baldintzak bete beharko ditue. Parte hartzeko ezinbesteko baldin-

tza da arduraduna goi mailako tituluduna izatea eta euskara arloan gitxienez EGA maila izatea. Taldeen kasuan, erdi mailako titulazioa eta EGA eskatuko jakez gainerako partaide guztiei.

Lehiaketan parte hartzeko eskakizunak eta berau lantzeko oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Elorrioko webgunean eskuragarri dagoz. ■ J.D.

Norbanakoez gainera, taldeak be aurkeztu daitez, gitxieneko baldintzak beteta

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eskuragarri dagoz

GARAI

Kultur etxea egiteko lanen atal bat adjudikatu dau Udalak

Garaiko Udalak kultur etxea izango den eraikinean lanak egiteko esleipena egin barri dau. Otea-Loran elkartearen gaineko lokalek hartuko dabe zerbitzu barria.

Barruko egokitzapena, KZgunea eta ludotekarena, aurrerago garatuko ditue

Teilatu konpontzea, aurrekaldea margotzea eta igogailua ipintzea sartzen dira lanen barruan, Gontzal Sarrigoitia alkateak azaldu dauenez. 145.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak, eta Construcciones Zamakoa enpresak lortu dau esleipena, 126.276 euroko eskaintzagaz. Irailean bertan itxaroten dabe lanekin hastea.

"KZgunea eta ludoteka egokituko dira bertan", besteak beste, alkatearen berbetan. Lan horreek beste fase batean garatuko dira, aurrerago. ■ M.O.

IZURTZA

Elizbarrutiagaz hartu-emonetan, eliza inguruko lanak burutzeko

Irailean dira hastekoak elizaren aurrealde eta atzealde egokitzeko lanak, besteak beste, BI-623 erreperiderako sarbidea hobetu asmoz. Elizaren inguruko lurretan lanak egiteko, baina, Bilboko elizbarrutiak bere jabetza-koak diren lurak lagatzea behar dau Udalak, eta lagatzeko eskaria egin deusie.

Lorea Muñoz alkateak dionez, lurak lagatzeari ezezkoa erantzun deutso Bilboko Elizbarrutiak, eta negoziazioetan jarraitu arren, Udalak lanen egutegiagaz aurrera jarraituko dau, lanak finantzatzeko baliatu daben diru-laguntza jasotzeko baldintzetako bat lanak otsaile-rako bukatzea da-eta. ■ I.E.

Elizbarrutiagaz adostasun batera ailegatu gura dauela baina lanak irailen hasiko ditueela dino Udalak

Gaur San Agustin auzoan jaietan dira

Udalaren finantziarazino moduagaz ez dagoz ados eta Olazarrek bere kabuz antolatu ditu jaiak

Ekitaldiei jagokonez, aurreko urteetakoak baino xumeagoak izango dira aurten Etxebarriko San Agustin auzoko jaiak. Izan be, Olazar Auzo Elkarteak bere kabuz antolatu ditu jaiak; Udalak proposatu deusien laguntza sistemagaz ez dagoz ados, eta gurago izan dabe aurten eurek euretara antolatu. Udalaren proposamenagaz jaiak antolatzea ezinezkoa zela azaldu dabe elkarteko kideek; datoren urterako ezadostasuna konpontzea itxaroten ei dabe.

Jai-giroa diruak barik gogoak eta ilusinoak sortzen dauenez, festarik ez da faltako gaur. Eguerdian meza izan dabe. Arratsalde, barriz, 19:00etan, umetxoek txopo txiki bat

jasoko dabe. Segidan trikitilariak girotuta trikipotea egingo dabe auzoko taberna bietatik. Azkenik, 21:30 inguruan auzo-afarian batuko dira elizpean. Bakotxak bere janaria eroango dau. ■ J.D.

Udalaren proposamenagaz jaien gastuei ezin deutseela aurre egin azaldu dabe

Gaur 19:00etan txopoa jasoko dabe umetxoek, eta ondoren auzo-afarian batuko dira



Aurten auzoko umek altxatuko jabe jaiet hasiera emongo deusien txopoa. Olazar

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

EGIA AROZTEGIA EBANISTERIA

ZUZENEKO SALMENTA

Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurria - Oholtzak

Tel. eta Faxo: 681 77 46 Tablita kalea, 54 48200 DURANGO

Etxea: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

katerin ardoak

iñaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427



OTXANDIO



Ermitan bertan ez dabe lanik burutuko, oraintsu erabarritu dabe-eta.

San Martin ermita inguruko pagadia handituko dabe

Era berean, ermitarako sarrera hobetu eta bolatokia konponduko dabe

San Martin ermita inguruan hainbat lan burutuko dau Udalak. Batetik, inguru ha dotoretzen dauen pagadia handituko dabe. Bestetik, ermitarako sarrera hobetu eta bolatokia konponduko dabe. Lanak irailan zehar esleituko ditue eta urte amaierarako amaituta egotea itxaroten dabe. Obra zibilak 86.000 euroko aurrekontua dauka.

Santamañetan herri-bazkaria egiten dabe San Martingo pagadian. Pasealarien ohiko jomuga be badira inguru horreek. Horregaitik, lurjabe bategaz permuta egin eta pagoak landatuko ditue. Horregaz batera, pagadiko biodibertsitatea hobetzeko lanak be egingo

Pago-landarak ipintzeagaz batera, gune haretako biodibertsitatea hobetzeko lanak burutuko ditue

Bolatokiko egurra aldatu egingo dabe eta ermitari sarrera barria egin, atzetik

ditue: landare inbaditzaileak moztu, ingurua garbitu... Horretarako, Aldundian diru-laguntza eskaera egin dabe.

Sarrera eta bolatokia
Bestalde, orain ermitara dagoen sarrerak pagadia erditik mozten dauenez, atzeko aldetik sarrera barria egingo deusie. Inguru naturala da eta, beraz, ez dabe asfaltatuko, baina baleiteke hartxintxarra botatzea. Horregaz batera, ermita ondoko bolatokia be konponduko dabe. Egurra ustelduta dauka eta beharrezkoa da ordezkatzeko. Ermita bera ez dabe ikutuko, orain ez denpora asko erabarritu dabe-eta. ■ J.D.

Lanok amaituta, Idoia Mendiagarai alkateak aurreratu dauenez, zelaian beste zenbait egitekorri ekingo deusie: asmoetariko bat, futbol-zelaiaren behekaldean gimnasio bat egitea dela azaldu dau alkate jeltzaleak. Bestetik, bulegoentzako espazioa be egokituko ei dabe aurrerago. ■ I.E.

Zalduako taldeek liga hasten dabenerako amaitu gura ditue bigarren faseko lanak

ZALDIBAR

Jesarlekuak eta aterpea ipiniko ditue futbol-zelaian

Ikasturte hasiera honetan hasiko dira Solobarria futbol-zelai barriko lanen bigarren fasea burutzen

Ikasturte barriagaz dira ekitekoak igazko urrian inauguratu eben belar artifizialeko futbol-zelaiko lanen bigarren faseari. Eibarren kontrako lagunarteko partida bategaz inauguratu eben zelaian, udazkenetik aurrera batuko diren ikus-

leendako gunea egokitzea da irailan garatuko dituen lanen helburu nagusia: Zaldia futbol taldearen zaleak haize eta euriagandik babestuko dituen aterpea eta jesarlekuak dira datozen asteetan Solobarrian egokitu ditueenak.

MALLABIA

Jaiak ospatuko ditue asteburuan Zengotitan

Zapatuan hasi eta astelehena arte, hainbat ekitaldi antolatuko ditue Zengotitako auzotarrek

Asteburu honetan San Roman Nonatoren omenezko jaiak ospatuko ditue Zengotita auzoko bizilagunek. Urtero legez, ohiturari eutsiz, jaiak abuztuaren 29an emongo deusee hasiera, donien-atxa jasozeagaz batera.

Domekan, goizeko 11:30ean, meza nagusia izango da. Ondoren, Berrizko San Lorentzo dantzari taldeak erakustaldia eskainiko dau. Dantzarien saioa amaitzerakoan Dariola Txapelketa antolatuko dabe. Eguerdiko 13:00etan herri-kirolen tartea izango da: Jon Lapazaran, Zelai II. eta Zelai III. arituko dira.

Domekan, mezaren ondoren, Berrizko San Lorentzo dantza taldeak erakustaldia eskainiko dau Zengotitan

Arratsalderako be hainbat ekitaldi aurrekusi ditue. 17:30ean bolo txapelketa nagusia jokatu dabe, eta iluntzeko 20:00etan Irati, Olatz eta Alazne trikitilari-kin erromerian dantza egiteko aukera izan go da.

Astelehenean 19:00etan asto-probak izango dira, eta ondoren karretila zotz egingo dabe

Astelehenean, goizeko 12:00etan, meza izango da eta 13:00ean bolo txapelketa. Arratsaldeko 19:00etan, asto-probak antolatuko ditue Zengotita auzoan. Narbaiza, Aterpe, Satsibar eta Arberen astoak neurtuko dira. Jaiak amaiera emoteko karretila zotz egingo dabe. ■ P.M.

ABADIÑO

Monica Quintas izango da Talde Independienteko zinegotzi barria

Uda aurreko azken udalbatzarrean emon dau jakitera Abadiñoko Independentek taldeak, aurrerantzean Udalan ordezkari izango dauen bosgarren zinegotziaren izena. Irailan hartuko dau udalbatzarrean jagokan jesarlekua Canalaecherriaren ordezkari izango den Monica Quintasek.

Iraileko udalbatzarretik aurrera hartuko dau Quintasek bere jesarlekua

Orain urte biko udal hauteskundeetako emaitzetatik eratorritako Udalaren osaketagaz independenteei jagokozen bost zinegotzietako batek, Luis Migel Canalaecherriak, kargua itzi eban ekainean. Herritar talde batek Eneko Zarrabeitia preso politikoaren herriratzea eskatzen eban mozinoaren aldeko botoa emon eta gero, bere berbetan "taldeari egindako min handia" kontuan izanda, dimisinoa aurkeztu eta kargua iztea erabaki eban. ■ I.E.

Muntsaraztik Urkiolara igoera dogu aukeran, Errogatiba Egunez

Abuztuko azken zapatuan, bihar, da Urkiolarako bidean hainbat lagun batzen dituen Errogatiba Eguna. Ohiturak agintzen dauenez, goizeko 09:30ean abiatuko dabe Abadiñoko auzoetatik igaroko den ibilbidea. Ordu horretan aterako dabe San Rokeren irudia Andra Maria baselizatik, eta Urkiolarainoko prozesinoa hasi. Muntsaratz, Zelaieta, Mendiola eta Atxarterainoko ibilbidea osatuta, hamarretakoa egingo dabe Txakurzulon, eta Urkiola tontorrerainoko bidea jarraituko dabe.

Urkiolako Santutegian, 11:30ean, izango dabe Meza nagusia, eta, ohiko eran, Talde Batuaren dantza saioa eta ardao banaketa izango dira Urkiolan eguerdia arte. Bazkaria eta dantzaldia eta gero, 18:00etan abiatuko dabe Abadiñorako bueltako bidea, eta Lotxo Taldeagaz borobilduko dabe eguna. ■ I.E.

Abuztuko azken zapatuan, bihar, Urkiolara joango dira Errogatiba Egunean parte hartuko daben auzotarrak

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Catalana Occidente

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Arrike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

ATXONDO

Ur Partzuergoaren esku itzi dabe sei iturbururen ustiapena eta jabetza

Bizkaiko Ur Partzuergoak eskatu deutso Udalari iturburuen kudeaketa lagatzeko

Orain arte Udalaren jabetzakoak ziren Axpe eta Arrazola auzoetako mendigu-neetako sei iturburu Bizkaiko Ur Partzuergoa erakunde publikoak kudeatu eta ustiatu daizen onartu dau zinegotzien gehiengoak uztaileko udalbatzarrean.

Jabetza Ur Partzuergoari itzi arren, aurrerantzean be iturburu horreetako ura errekaratzen jarraituko dabela nabarmendu dau alkateak, baina "Atxondoko Udala Ur Partzuergoko kide izanik, iturburuen kudeaketa eta mantenimendua Partzuergoak egitea zentzuzkoa" dela uste dau

Axpe eta Arrazolako mendi aldean dagozen sei iturburu dira Bizkaiko Ur Partzuergoak kudeatuko dituenak

Gobernu Taldearen proposamenagaz kritikoa agertu ziren udalbatzarrean zinegotzi jeltzaleak

Cobos alkateak. Ezker abertzaleko alkatearen esanetan, orain arte legez mantenduko dira iturburuak, eta Udalak inoiz bertako uraren beharrik baleuka orain arteko moduan baliatu ahalko lekiez. Iturburuak Ur Partzuergoaren kudeaketarako lagatzea proposatu eta onartu eban Gobernu Taldeak; kontra bozkatu eta erabakia kritikatu egin eben jeltzaleek.

Lehen auzolanean zaindu izan ditueen iturburuak egoera onean izateko modua dela euren jabetza Ur Partzuergoari lagatzea; horixe azpimarratu gura izan dau Dabid Cobosek. ■ I.E.

BERRIZ

Sinbolo frankisten inbentarioa eginda, irailean hasi leitekez kentzen

Frankismoko Etxebizitza Ministerioaren 45 plaka inguru identifikatu ditue



Martxoan onartu eben sinbolo frankistak kentzearen aldeko mozinoa. Judit Fernandez

Herriko sinbolo frankista guztiak kentzearen alde martxoan aho batez onartu eben mozinoaren haritik, ekainean eta uztailean zehar sinbolo horreen inbentarioa egin eben udal langileek. Guztira, atari gainean frankismoko Etxebizitza Ministerioak ipinitako 45 bat plaka identifikatu ditue.

Aurkitu diren eraikin bakoetako bizilagunei baimena eskatu jake plaka kentzeko. Askok emon

dabe aldeko erantzuna. Falta direnena luze baino lehenago jasotzea itxaroten dabe, komunitateko lehenengo batzarra eginda. Beraz, irailean bertan kendu lekiez plakak. Era berean, herrian dagozen graffiti inbentarioa be egin dabe, eta plakak kentzen ditueen sasoi berean garbituko ditue. Azkenik, panel informatiboetatik kanpora ipinitako kartelak be kendu egin-go ditue. ■ J.D.

Hormetako graffitiak eta panel informatiboetatik kanpora ipinitako kartelak be kenduko ditue

DURANGALDEA

Desjabetze-aktak altxatzen, Abadiñon eta Atxondon



Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako protestak deitu ditue datorren astean bai Abadiñon bai Atxondon. Azpiegitura horretarako lanak aurrera eramateko desjabetze-akten altxamendua egiteko hitzordua jarri dabe herri biotan, AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek jakin eragin dabenez, eta horren aurrean kotzentrazioak deitu ditue: irailaren 2an eguaztenean, egingo dabe protesta Abadiñon, eta hilaren 3an Atxondon. Gogoratu daigun herri bietan bertan behera itzi zitueela uztailean desjabetze akten sinadura deialdiak "desjabetzeen argitaratzean akatsak izan zirela eta". AHTaren aurkako jarrera agertu eta egun biotan 08:30ean udaletxeotara bertaratzera deitu ditue herritarrak.

OTXANDIO

Argiteria publikoa hobetzeko diru-laguntza eskaria egin dabe

Otxandiori aurten egokitu jake argiteria publikoaren inspektzioa egitea. Proposatutako hobekuntzak egiteak 33.000 euroko gastua dauka eta ez dabe horretarako diru-atalik aurreikusi. Uztailean amaieran Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntza eskaria egin eutsien, aurreikusi bako gastuak estaltzea helburu dauen dekretu bat onartuta daukalako. Oraindino, ez dabe ezelako erantzunik jaso Aldundiaren aldetik.

IURRETA

Plazatxo barria, herrigunean

Udagoienean hasi gura ditu Udalak txapa-lantegia bota eta geratuko den orubean plazatxo egokitzeko beharrak. 2009ko udal aurrekontuaren soberakina erabili egin gura deutse aurre 286.000 euro inguruko inbertsinoa eskatuko daben obrei. Erdian iturria izango dau egin gura daben plazatxoak. Denera, 315 metro koadro inguru daukaz txapa-lantegia bota eta geratuko den orubeak.



BERRIZ

Ikastaro ugari aukeran Berrizburun

Ikasturte barria hasteagaz batera aurkeztu dau Berrizburu kiroldegia ikastaro sorta. Horretara, igeriketa ikastaroak ez eze, cycling klaseak be eskainiko ditue, beste hainbat jardueragaz batera: aerobica, batuka, mantenu gimnasia edo pilatesa praktikatzeko aukera izango dabe holan gura daben berriztar zein ingurukoek. Ikastaroak irailaren 21ean hasiko dira, Berrizburuko arduradunek azaldu dabenez. Izena emoteko epea, barriz, irailaren 14a bitartekoa izango da; kiroldegian bertan egin behar da. Lekuen zotz egitea hilaren 16an izango da.

BERBAZ >



Iban Gorriti

Juan Jesús Díez •

- 27 urte
- Gure San Fausto Berria elkartearen kidea

“Urteotan, hirigintzan ez dabe hobekuntzarik egin auzoan”

Arratoiak eta aparkaleku falta dira San Faustoko auzokideek bizi ditueen arazoetako batzuk.

Gure San Fausto Berria elkartearen alde gogotsu dihardue lanean. Berrehun lagun inguru batzen dituen taldeak, auzoko arazoei irtenbideak bilatzeaz gainera, kultur arloko ekitaldiak antolatzen ditu.

Zelan sortu da elkartea?

2006an sortu genduen elkartea, auzoko gabeziei erantzuna emon eta ekitaldi kulturalak antolatu guran. Auzora jente barria etorri da, eta kultur ekitaldiekin auzokide barriak ezagutzea gura dogu, batetik. Bestetik, hirigintza mailan ditugun arazoak konpontzea.

Zeintzuk dira gabezia horreek?

Udalari txosten bat emon geuntsan auzoko arazoaren barri emonez, baina batek daki non egongo den. Hainbat arazo daukagun arren, arratoiak nabarmenduko neuke. Katuekin konpondu gura eben

batzuek, baina azkenean katuak arratoiak baino arazo larriagoa bihurtu dira. Debe-katuta dagoen arren, jenteak katuak elikatzen ditu.

Irtenbidea bilatzeko neurririk jarri dabe?

Auzoa hondakindegia baten gainean eraikita dago, eta, terrenon hutsuneak dagoenez, arratoiak zirrikituetatik sartzen dira eta arazoa konpontzea gatxa da. Alde guztietatik irtetzen dira eta irtenbidea bilatu behar da, halan be.

Parkea eta eraikin zibikoa egiteko proiektuari zer deritzozue?

Idea ona dela deritzogu. Halan be, frontoia be konpondu eben eta orain erabiltzeko ordaindu egin behar dogu. Konpontzen dabenean ez dakigu zerbitzu barri horregaz zer gertatuko den. Uda partean kiroldegira joaten dira guraso eta umeak. Hasierako proiektuan esan ebenaren arabera, lur azpiko parkina egitekotan

ziren, eta auzokideek plaza bana izango leukie kostu prezioaren arabera.

Auzoan aparkatzea ez da erraza.

Parkin bakar bat be ez daukagu. Lehenago etxepean aparkatzen genduen, baina orain ezin da. Jente gazte asko etorri da auzora, eta gazteek kotxe bana daukie. TAOa irtenbide legez proposatu euskuen, baina horrek ez leuke ezer konponduko. Egunean zehar errazago aparkatu leiteke. Gauetan izaten da arazorik gehien. Eraiki barik dagoen lurretan parkina egitea litzateke egokiena.

Auzoan antolatutako ekitaldiekin pozik zagozue?

Jentearen artean harrera ona izan dabe. Txixiburduntzi Eguna, San Joan suak, Futbito Txapelketa eta San Fausto Festival antolatu doguz. Kontzertuetan eguraldia ez genduen lagun izan. Inguruko taldeendako erakusleihen bat sortu gura izan dogu.

Lokalik badaukazue?

Jubilatuekin partekatzen dogu lokala. Eraikin barria egiten badabe, lokala bertan egotea gurako geunke. Materiala gordetzeko ez daukagunez lekurik, bakotzak bere etxera eroan behar izaten ditu gauzak.

Auzoak zer garapen izan dau?

Sabeco eta Abadiñogaz lotuta, oinezkoen joan-etorri handiagoa dago, baina hirigintza aldetik azken 15 urteotan bardin jarraitzen dogu. Gazte eta etorkin asko etorri da auzora bizitzera, pisuak merkeago dagozelako. Auzoko bizimodua egiten jarraitzen dogu.

Beste auzo elkarte batzuekin hartu-emonik badaukazue?

Inoiz herriko beste auzo elkarte batzuekin batu gara Durangoko auzo elkartearen bilgune bat sortzeko. Indar txikiak batuta, denok arduratzen gaitueen gaiak konpontzeko modua izan leitekela pentsatzen dogu. ■ Jone Guenetxea

“Aldaketak izan diren arren, auzoko bizimodua egiten jarraitzen dogu”

“Auzo elkartearen bilgune bat sortu gura geunke Durangon”

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Aldi baterako 13 lanpostu barri beteko ditu Udalak

INEMek %100ean egingo deutse aurre lanpostuei, 276.000 euro bideratuz. Krisi egoerari aurre egiteko Udalak landutako lan ildoetako bat da hori.

Udalak aldi baterako 13 lanpostu barri sortu ditu INEM-Tokiko Gorporazioak egitasmoaren baitan, eta datozen hileotan beteko dira gehientsuenak. Erreka garbiketa eta kontrolerako ekintza zuzeneko brigadan jarduteko hiru peoi eta ofiziala uztaile amaieran hasi ziren lanean, eta irailean lau hiri-agente hasiko dira. Ondotik, hiriko lokalen azterketagaz amaitzeko hiru lagun —koordinatzailea, administraria eta deliniantea—, sustapen ekonomiko, enplegu eta formazio teknikaria eta komertzio teknikaria kontratatuko ditue. Apurka

“Urteetako itzikeria eta gero” egitasmoagaz bat egiteagaitik zoriondu dabe EAJ sozialistek

Sei hileko lanpostuak dira eta apurka-apurka betegura ditu Udalak

beteko ditue postuok, batzuek formazioa be beharko dabe-eta.

INEMek %100ean lagundutako sei hileko kontratuok —276.000 euro— krisi egoerari aurre egiteko Udalak landutako lan ildoetako bat dira. Aurrerago sakonduko daben ituna be adostu dabe Aldundiagaz, 50 lanpostu sortzeko, eta gizarte eta laneratze enprekin be lan egingo dabe. “Urteetako itzikeriaren ondoren eta guk behartuta bada be” egitasmoagaz bat egin dauela-eta, PSE-EEK “zoriondu” egin dau EAJ. “Ez dakigu, baina, enplegu eta ekonomia sustapenean zein estrategia daroen”.

Landako Guneak erabilera-egun kopurua igon dauela dioe

Urteko lehenengo seihilekoan %33ko okupazio-maila lortu dau Landako Guneak, erabilera-egun kopurua %27 hazita (198 egun). Igazko epealdi berean lortutakoa baino %7,2 handiagoa izan ei da okupazioa. 24 ekintza antolatu dira bertan: sustatzaile pribatuek antolatu ditue bederatzi, uriko elkarteek zortzi eta Durangoko Udalak zazpi.

Udala izan ei da eremua sarrien erabili dauena (%20,67); gero sustatzaile pribatuak (%6,83) eta elkarteak (%5,50). Baina, elkarteek nabarmen igon ei dabe erabilera maila. Bestalde, Ekitaldi Aretoak 69 jarduera batu ditu; igaz baino %46 gehiago. Otsailean gehien (19); gero martxoan (17) eta ekainean (12).

■ kolaborazioa



Jose Petite
CCOO sindikatua

Gizarte elkarrizketa Euskadin

Jakina denez, uztailean hasi dugu Eusko Jaurlaritza, Patronala eta CCOO eta UGT sindikatuen arteko Gizarte Elkarrizketa Euskadin. Sindikatu abertzaleek ez dute parte hartuko, eurek hala erabaki dutelako, eta mahaia Patronalaren interesen babeserako daudela argudiatu dute horretarako.

Euskadiko CCOO aspalditik aldarrikatu du elkarrizketa soziala, gure ustez, lan harremanak era demokratikoan eraikitzeko oinarritzko tresna baita. Gizarte elkarrizketan ez parte hartzea zilegi da, baina horrek ez du inongo indarririk erakusten. Ordezkaritza handia duten klase sindikatuak baliagarri egiten dituen funtzioari uko egin diote sindikatu abertzaleek.

Gobernuek onartzen dituzten eta langileen eskubideak arautzen dituzten politika publikoetan eragin nahi dugu, eta horretarako parte hartuko dugu elkarrizketa mahaian. Guk egin ezean ere, politika hauek aurrera eramango dira, baina alde bakarreko erabakiekin eta botere ekonomikoaren presiopean. Gizarte Elkarrizketa gobernu on baten kulturaren parte da, gizarte eragile eta eragile ekonomikoaren parte-hartzearekin gizarteko arazoak, ekonomikoak eta lan esparrukoak lantzeko; are gehiago gaurkoa bezalako krisi egoera batean.

Bertan parte hartzeko, beharrezkoa da langileen interesak defendatzeko helburu eta proposamenekin joatea, eta horretarako CCOO hainbat proposamen eraman du mahaietara. Lehenik, babes gutxien duten pertsona eta langileentzat gizarte babesa handitzea; bigarrenik, enpleguaren politika aktiboen transferentziak kontuan hartzea; eta hirugarrenik, enplegu ziurra eta eskubideak izango dituen lortzeko neurriak garatzea. CCOO langileei eragiten dieten gaiak erabakitzaren diren esparruetan presente egon nahi du, euren interesak ordezkatzeko legitimaturik dagoelako.

> ABADIÑO



Rothenberger enpresak Abadiñon daukan lantokian batu ziren beharginak uztailean. Iban Gorriti

Bost lankideren kaleratzea salatu dabe beharginak Rothenbergerren

Rothenberger enpresako komiteek —baita Abadiño zein Gasteizko lantokietako beharginek— “erabat gaitzetsi” dabe enpresak bost langile kaleratu izana. Joan zen uztailean Abadiñoko lantokiaren aurrean batu ziren hainbat behargin enpresako zuzendaritzak bertatik irten zeian trabatu guran, eta Ertzaintza be bertaratu zen.

Langileon kaleratzeak agintzeko datak eta moduak salatu ditue beharginak, helerazotako ohar baten bitartez. Era berean, Rothenberger enpresako zuzendaritzari kaleratze horreek atzera botatzeko “exijitu” deutesie, “egoera normaltzeko”. Halantxe jakin eragin dabe enpresa komiteek eta beharginak.

EXCAVACIONES JON
SERVICIO DE MANTENIMIENTO INDUSTRIAL Y HERRAMIENTAS
Jon Garitagoitia Gullustegui
Paseo de la Libertad, 411 - BERRA - 48200 MALLABIA
Tel: 945 17 39 54 - Móvil: 609 44 99 38

ZARATE ELEXP E R A G I L E A K
Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

KULTURA[>]

PINTURA > ERAKUSKETA

Xabier Ega aren erakusketa: Bizitzaz

Durangoko Museoan eta Uribarriko Andra Maria Elizan dugu ikusgai Xabier Egaña artista getxoztarren pintura lanak biltzen dituen *Bizitzaz* margo erakusketa.

Eskultura eta pinturatik ere baduten formatu handiko lanak dira, Egaña artista espresionistak askotariko materialak baliatuta azken urteotan osatutakoak.

Javier Alvarez de Eulate margolariaren eskutik abiatu zuen bere artista ibilbidea Xabier Egañak, eta 1965ean Gasteizen egin zuen lehenengo erakusketa. Ondoren, 1968 eta 1969 urteetan, Arantzazuko Basilikako Apostoluak lantzen zebilen Jorge Oteiza eskulturgile gipuzkoarraren tailerrean lanean arituta-

koa da Xabier Egaña. Aurrerago ere, Oteizarekin elkarlanean aritzeko aukera izan zuen Egañak Andra Mariaren Basilikako muralen zirriborroak egiteko. *Bizitzaz* erakusketa da artistak oraingoan Durangon ikusgai ipini duena.

Arrigorriagan, Sopelan, Zarautzen eta, besteak beste, Alemaniako hainbat hiritan ere ikusgai dago Egañaren lana. Hain zuzen, Alemanian burutu du Egañak azken urteetan lan gehien, eta zelanbait han izan du bere lanak onarpenik handiena.

Batzuetan errealista eta besteetan abstraktuago, erlijiosoa bezain kritikoa ere bada Xabier Egañaren lana, eta kontsumo gizartearekiko kritiko izaten da sarritan bere lana. ■ I.E.



12 Eskultura lehiaketa Berrizen

Lehenengo aldia izango du Berrizko Udalak antolatutako lehiaketak. Irabazle hautatutako eskultura, egileak proposatutako lekuan kokatuko dute.



13 Julen Orbegozo kazetariarekin

Chiapasera bidaiatzeko aukera izan zuen sari Julen Orbegozo kazetariak GKEen erreportaje lehiaketan. Hango esperientziak kontatu dizkigu.

ESKULTURA > LEHIAKETA

Eskultura Lehiaketa egingo dute lehenengoz Berrizen

Azaroan zehar Berrizko Udalean aurkeztu beharko dituzte parte hartu gura duten artistek eskulturen maketak; 50x50x50 zentimetrokoak, gehienez

Ikasturte berriari begira, urtea nobedadeekin hastekotan, lehenengoz antolatu dute Eskultura Lehiaketa Berrizen. Euren lanen maketak aurkeztuko dituzte artistek, eta herritarrek eta epaimahaiak erabakiko dute zein eskultura saritu, eta aukeratutako hori Berrizko zein gunetan kokatu. Lehiaketako parte-hartzaileek, euren eskultura proposamena Berrizko guneren batean jartzea da I. Eskultura Lehiaketa honen sari nagusia; diru-saria 18.000 eurokoa izango da.

Talde moduan edo bakarka aurkeztu ahalko dituzte artistek euren lanak Berrizko Udalean edo Kultur Etxean, eta datorren azaroaren 2 eta 27 bitarteko epea izango dute horretarako. Aurkeztu beharrekoa, gehienez 50x50x50 zentimetro duen eskulturen maketa izango da. Bestalde, eta horrekin batera, artelanaren azalpen teorikoa eta memoria aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek; eskultura egiteko baliatu beharreko materialari buruzko zehaztasunak, azalpen teknikoak eta egiteko behar lukeen denboraren estimazioa eginez.

Maketarekin batera, bestalde, eskultura Berrizko zer lekutan kokatzea gura luketen adierazi

Lehiaketa irabazten duen eskultura Berrizen kokatzea sari nagusi

Azaroaren 2tik 27a arteko epea ezarri dute maketak aurkezteko

Herritarrek ere euren botoa emango dute irabazlea hautatzeko

beharko dute artistek; lekuaren plano, zirriborro edo erreprezentazio baten bitartez, esaterako. Izan ere, lehiaketaren sari nagusia, artisten artelan maketa edo proposamen horiek herrian jarri ahal izatea izango baita: artisten proiektuak burutzea. 2010 urtean zehar lana burutzea izango da artistaren saria eta konpromisoa.

Lehiaketaren oinarrietan jasotzen denez, irabazle hautatzen duten eskultura Berrizko zer lekutan ipini erabakitzerakoan artistaren gogoia izango du besteren gainetik Udalak aintzat.

Lanen erakusketa

Artelanak jaso eta aurkezteko epea amaitu bezain laster, epaimahaiak onartutako artelanen zerrenda egingo du, eta erakusketa bat egingo dute aukeratutako lanekin; 2009ko abenduaren 7tik 2010eko urtarrilaren 8a arte.

Bitartean, Berrizko herritarren botoen bitartez, lehiaketa irabazi dezaketen aukeratuko dituzte. Boto gehien dituzten hiru artelanen artean, epaimahai espezializatu batek erabakiko du zein den irabazle izatea merezi duena.

Urtarrilaren 17an jakingo dugu Berrizko I. Eskultura Lehiaketaren irabazlearen izena. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga, 'Etxe' Abeslaria

Ez dago etenik!


Beste uda bat gehiago. Eta aurten be hainbat jai pasatu dira. Eta jaietan, zelan ez, kontzertu ugari. Inguruko herri askotan aukera zabala eduki dogu. Lehenengo poteotxoak, gero txosnetako bokata, eta azkenik garagardo katxi bat hartu eta kontzertuak ikusi. Hori bai plan ederra. Baina udako ederrena Bruce Springsteen ikustea. Artisten artean handiena. Izugarria Bilbon emondako kontzertua. Hiru orduko emanaldia!

Oraindino gelditzen dira jai batzuk, eta horreetan be kontzertu asko ikusteko aukera edukiko dogu. Baina hasi gara jadanik neguko denboraldiari begira. Oporrak amaitu eta asteburu etako errutina heltzear dago. Eta horregaz batera, Plateruena Kafe Antzokiko kontzertuak eta asteburu etako poteoak.

Irratietan be hasi gara musika talde batzuen nobedadeak entzuten, eta, bitartean, beste batzuek estudioan jarraitzen dogu lanean, diskoak prestatzen. Hiru hilabete falta dira oraindino, baina musikari eta musikazale asko Durangoko Liburu eta Disko Azokari begira gagoz dagoeneko. Aurten be ez delako nobedaderik faltako, ezta kontzertu ederrik be.

Zoritarrez, badago, ordea, disko gehiago grabatuko ez dauen musikaririk be. Uda hasi eta jarraian hil zen poparen erregea. Bere kontzertuetarako sarrerak itzuli beharrean aurkitu dira zale ugari. Baina badirudi bere bizitza osoa laburbilduko dauen erakusketa bat prestatzekotan dabilela Donostiako enpresa bat. Beraz, horregaz konformatu beharko dogu. Bitartean bere musikagaz gozatzen jarraituko dogu. Beti izango zaitugu gogoan, Michael.

MUSIKA > EMANALDIA



Iker Undersound DJ-a ere arituko da Plateruenean. I.Gorriti

Elektronikak zabalduko du ikasturte berria Plateruenean

Lau DJ-k eskainiko dute emanaldia irailaren 4ko V. Gau Elektronikoan

Abuztuaren zehar taberna eta jate-txea itxita ez ezik, zuzeneko kultur emanaldi barik ere izan da Durangoko Plateruena kafe antzokia. Ikasturte berria abiatzearekin, baina, irailaren 4tik aurrera ohiko martxa hartuko du aretoak, eta zuzeneko emanaldiz bete.

Lau disko jartzaile izango dira ikasturteko lehenengo emanaldian

Musika elektronikoa eskainiko duten lau disko jartzaile dira ikasturte hasiera honetan Plateruenean izango direnak: Jor-G eta Stan arituko dira batetik, eta Plateruenean ohikoak diren disko jartzaileak; Gau Elektronikoetan lehenago ere aritutako Ruben Costas eta Iker Undersound durangarra ere arituko dira beste behin.

Irailaren 4an, barikuan izango da Plateruena kafe antzokiko

musika elektronikoaren bosgarren gaua, 22:00etan hasita. Behin ikasturtea abiatuta, berriro kultur ekitaldien eskaintzaren ohiko jarduna berreskuratuko du irailaren 1ean ateak zabalduko dituen Landako etorbideko antzokiak.

Udazkenean datozenak

Oraindik egutegia guztiz osatu gabe egon arren, abendura arte askotariko kultur eskaintza jasoko duen programazioa prestatu Plateruena kafe antzokiak.

Dagoeneko iragarriak dauden artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, irailaren 17an ikusgai izango dugun Bikoteatroren *Euskarazetamol* antzezlan berria eta Terry Lee Hale kantari Estatu Batuarren eta Petti nafararren irailaren 18ko kantaldia.

Azaro amaieran, berriz, Anni B Sweet abeslari madrildar gazteak Plateruenean aurkeztuko du *Start, Restart, Undo* izena daraman diskoa. Udazken eta negu oparoko datorkigu Plateruenean. ■ I.E.

Iker Undersound eta Ruben Costas etxeko DJ-ak ere arituko dira

Musika elektronikoaren V. gaua da irailaren 4rako prestatu dutena

Abendura arteko programazioa dute Plateruenean lotuta

KAZETARITZA > ELKARRIZKETA

Zer ekarri dozu bidaiatik?

Lortu dot beste ikuspuntu batek ezagutzea Chiapas. Igaz be leku berean egon nintzen, San Cristobalen, eta hango gizartera eta Zapatismora gerturatzea izan dot helburu nagusi.

Bigarren bidaia honek zer alde dauka lehenengoagaz?

Orain konturatu naz igazko bidaia lehenengo hurbilketa baino ez zela izan. Beste modu batera ikusi ditut gauzak orain, beste begirada batez. Bigarrenez joanda be, badakit ezin leitekela egun edo aste gitxian herrialde bat sakon ezagutu.

Igazko bidaia zeure kontura egin zenuen. Aurtengoa aldiz, lehiaketa irabazi izanagaitiko saria izan dozu...

Bai, igazko bidaia nire kontura, turista legez, egin neban. Chiapaseko komunitate batean garatzen zebilen proiektu bat ezagutu neban orduan, eta hona bueltatu nintzenean proiektu hori martxan ipini ebenak eta adituak elkarrizketatu eta euren ahotsak jasota osatu neban irratirako *Hornos ahorradores de leña* erreportaje saritua.

Zer berezitasun dauka zure erreportajea saritu dauen kazetaritza lehiaketak?

Baldintza nagusiak ziren, batek, GKE baten edo proiektu zehatz baten inguruko kazetaritza artikulua edo erreportajea egitea, eta Euskadiko GKE Koordinakundeak zehazten dituen hamar pautak jarraituz egitea; klitxe eta estereotipoak alboratuta zelan komunikatu behar geunden azaltzen daben kode etikoa jarraitzea, beraz.

“Chiapasera egin dodan bigarren bidaian batu ditudan irudiekin egingo dot erreportajea”

Aurten ezagutu ahal izan dozun proiektuaz zein izan da?

Euskadiko GKE Koordinakundearen barruan dagoen Paz y Solidaridad taldeak Chiapasen egiten dauen lanaren alderdi bat ezagutu ahal izan dot uda honetan: Promedios. Kanpoko komunikabideen bertsinoaren aurrean, euren ikuspuntuak komunikatzeko indigenek baliabide propioak garatzea da proiektuaren helburu nagusia: Gobernuak kontrolatzen dituen komunikabideen aurrean, indigenek euren pentsamoldea komunikatu ahal izatea.

Zer lan egiten ditue?

Adibidez, etxe inguruan paramilitarrak dabilzela-eta, komunitateko “komunikatzailea” abisatzen dabe auzotarrek, eta berak grabatzen dau gertaera. Zapatisten salaketak munduari helarazteko baliatu leitekero irudiak. Nazioarteari, euren komunitateetan zelan helikop-

“Bidaiatzean be kazetaria naz, eta kontatzeko gauzak bilatzen ditut”

Euskadiko Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinakundeak urtero antolatzen dauen kazetaritza artikulua edo erreportajeen lehiaketa irabazita saritza jaso dauen Chiapaseko bidaian ezagutu eta ikasi dauenari buruz aritu jaku **Julen Orbegozo** kazetari gaztea



tero edo tankeak sartzen diren erakusteko modua dira gero grabazino horreek.

Zeure begiz ikusi ahal izan dozu aitatzen dozuna?

Ni San Cristobalen daukien bulegoan egon naz. Artxiboko irudiak eta argazkiak ikusi eta aukeratzen ibili naz, nire erreportaje osatzeko. Erreportaje horretan, baina, zoritxarrez ez da Zapatisten ordezkarien hitzik izango, pairatzen daben errepre-sino egoeran eurekin elkartu ahal izateko baimenak atzeratzen joan direlako, eta eurak elkarrizketatu barik bueltatu behar izan dodalako azkenean.

Chiapaseko errealitatean sakondu ahal izan dozu.

Bai, baina Chiapaseko lako egoeretan, zalantza bat argitu bezain laster beste hamaika duda sortzen jatzuz. Hango errealitatea sinplifikatzea ezinezkoa da, eta hemendik joan eta hilabeteetan ezin dozu hango errealitatea guztiz ulertu.

Kazetari moduan oso aberasgarria izango da esperientzia...

Hasteko, GKEen Koordinakundeak proposatutako hamar pautak horreek ezagutzea bera oso aberasgarria izan da, oso inportantea da-eta burutzen doguzen akatsetaz kontziente izanda lan egitea kazetariok.

Bidaian bildutako irudi guztiak begiratu, ordenatu eta lantzeko denpora hartu beharko dozu orain...

Bai, eta horretaz gainera, beste irudi batzuekin laburmetraia egitea be badarabil buruan: San Cristobalen zagozenean etenik bako mugimendua dago kalean; aberastan itzela dauka kaleak. Kalean jesarri eta gauzak etenik barik gertatzen dira zure aurrean. Aspertzen bazara, zeurea da errua. Ideia horregaz gura dot laburmetraia egin, eta halantxik grabatu nituen han zenbait irudi: egunsentia eta

“Hemendik joan eta hilabeteetan hango errealitatea ulertzea ezinezkoa da”

“San Cristobalen etenik bako mugimendua dago kalean. Aspertzen bazara, zeurea da errua”

ilunabarra bitartean San Cristobalen kalean dagoen saltzailak, turistak, indigenak... denak igarotzen dira grabatzen jarritako kameraren aurretik.

Bidaiari eta kazetari, beraz.

Oso aberasgarria da. Nik uste desberdina dela bidaiazale edo kazetaria izan. Ni kazetaria naz, eta bidaian be kazetari naz; kontatzeko gauzak bilatzera joaten naz bidaia guztietan, gugaz alderatuta desbardinak diren gauza horreek kontatzen saiatzen naz. Kazetari izateko modu bat da bidaiatzea. ■ I.E.



Zapatisten ikuspuntu eta begiradak mundura

Chiapaseko Zapatistek euren ahotsa zelan munduari helarazi erakutsi guran dihardue hamar urtez Paz y Solidaridad Gobernu Kanpoko Erakundearen baitako Promedios proiektuaren bultzatzaileek. Munduari euren ikuspuntua erakusteko baliabide teknikoak eskaini (bideo kamera, ordenagailuak...) eta berauek erabiltzeko jarraibideak emon ondoren, komunitateek eurek kudeatzen ditue bitartekoak. Komunitateko ekitaldi bat zuzenean grabatu eta Interneten *streaming* bitartez zelan emon ikasten dabilz orain, adibidez. Proiektuaren inguruko erreportajea osatuko dau Orbegozok.

FILM LABURRA > GRABAZIOA

Krisi ekonomikoa gaitzat duen film laburra osatzen aritu da Banarte

Ekaitz Elgezua Banarte antzerki taldeko kideak idatzi eta zuzendu du 'El Prestamo' film laburra

Iazko apirilean Abadiñon sortutako Banarte antzerki taldearen inguruan biltzen diren zenbait aktore eta sortzaile dira abuztu honetan *El Prestamo* grabatzen aritu direnak. Izan ere, taldekideek eurek nabarmentzen dutenez, askorentzako opor sasoia dena aprobetxatzen baitute zenbaitek ogibide ez baina

zaletasun eta gozagarri duten hori aurrera eraman eta taldekideen elkarlanean oinarrituta buruan duten ideia edo proiektuari helteko: antzerkia da Banarteko taldekideak lotzen dituen, eta film labur baten grabazioa da orain elkarlanean egin dituen.

Film laburretara salto

Iazko apirilean sortu zenetik Abadiñon, batez ere, antzerkigintza taler eta emanaldiak eskaintzen jardun dute euren burua *El desfloro de Banarte* bakarrizketa sortarekin aurkeztu zuten Banarte taldeko antzezleek.

Udahonetan hasi dutena bes-telako lana da: taldeko kideetako batek, Ekaitz Elgezuak, zuzendutako film laburra da banartetarrak lanean buru-belarri ipini dituen, uda sasoi bete-betean. Ikasketak Madril burutzen diharduen gaztea da film laburraren zuzendari eta gidogilea, eta *El Prestamo* du Abadiñoko antzerki taldeko kide



Gisa honetako bigarren esperientzia izan dute antzerki taldekoek

eta lagun kolaborazioarekin osatuko duen sorkuntza.

Azkenaldian denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa gaitzat duen ikus-entzunezkoa da abuztuaren bututzen aritu direna, euren berbetan, egoera ekonomikoari buruzko "ikuspegi ironiko eta umoretsua eskaintzen duena".

Rafa Herce, Banarte taldearen sortzaileetako bat, da film laburraren protagonista nagusia, eta Antonio izeneko pertsonaia da *El Prestamo* lan honetan interpretatzen duena. "Bizitzan aurrera egiteko jokoak ematen dion ilusioa baino ez duen gizon aberatsa da protagonista", aktorearen beraren hitzetan.

Ikus-entzunezko lanean baino antzerkian ohituagoa dagoen taldea izanagatik, ondo moldatu omen dira filma grabatzen.

Orain arte aipatutakoez gainera, Txema Ormaetxea, Erlantz Borges eta Javier Fernández Banarteko kideak ere badira film labur hau sortu duen taldearen parte. Durangoko Landako tabernan egin zuten grabaketa, eta taldearen beste hainbat lagun ere ondoan izan zituzten. ■ I.E.

Abuztuan, Durangoko Landako tabernan egin dute grabaketa lana

Banarte taldeko sortzaileetako bat, Rafa Herce, da protagonista

Jokoarekiko menpekotasuna duen gizon baten istorioa da

ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

Abadiñoko udal egutegiko argazkiak aukeratzeko lehia

Irailaren 30a bitartean aurkeztu ahalko dituzte argazkilariek euren irudiak

Abadiño eta bere ingurunea gai dituzten argazkiak izatea da Udalak antolatutako lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintza nagusia, batetik, eta 16 urtetik gorakoak behar dute izan argazkilariek, bestetik. Datorren urteko egutegirako argazkiak dira modu horretan hautatuko dituztenak.

Udalaren webgunearen bidez bidali ditzake argazkiak nahi duenak

Formatu digitaleko argazkiak aurkeztu beharko dira lehiaketara, eta irailaren 30a arteko epea zehaztu dute Abadiñoko Udalean, bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkezteko. Udalaren web orriaren bidez bidaliko dira argazkiak, eta bertan erregistratutako erabiltzaileek emango dute epaia. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

EGUNEKO MENUA
astelehenetik zaborra
Erreserbak: 946 030 300

IRAILAREN 1 ETIK AURRERA

Landako etorbidea, 4 48200 Durango

irailaren 11n
DENBORALDI
berria!

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ Liburu

11-91 601 07 76 Artekale, 14 Durango

Gremioen gida



Iturgintza

KLIMATIZAZIOA
KALEFAZIOA
ITURGINTZA
GASA

ARMANDI ITURGINTZA

Armandi, 16 - beheko 3. aldea
Sakelekoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 68
Iurretza

Baimendun
Instalazioak

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TR - SONDUA - BIDEUA - IRATIA
KOMINIKAZIOA - ANTENA KULPETHOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebista
Kablea

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurretza • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, beheko
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Gas

CIAL-UME
gas-likidoen banaketa-etxea, s.l.

GAS INSTALAZIOAK
ETXE OFIZIALA

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurretza, 7 - IURRETA Komentu kalea, 2-A - DURANGO
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 02 60

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B DURANGO Sakelekoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

Ubide iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Barne Dekorazioa

a-metz
[barne]diseinua

Ibaizabal, 3A beheko, 1D
48200 Durango/ Bizkaia
T. 94 681 84 81
M. 600 267 373

Diseinua
Dekorazioa
Ideiak
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erreformak
Gremioen
koordinazioa
Altxariak
Osagarriak

www.a-metz.com

sagasta
ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

HEMEN AGERTU


GURA BADOZU

DEITU

94 621 79 02

UDAKO JAIAK ARGAZKITAN

MALLABIA



Argazkiak: Kepa Aginako

MAÑARIA



Argazkiak: Kepa Aginako



FERIXA NAUSIKOAK

2009

Elorrio irailak 4 - 13

“Gordailu solidarioek, balio erantsia ematen diote nire diruari”

Silvia solidarioa da. Gordailu Solidario bermatu batean aurrezten du, eta bide batez lagundu egiten du gizarte-erakundeek eta baliabiderik gabeko pertsonak euren proiektuak aurrera atera ditzaten.

SILVIA, 36 urte. Enologia-teknikaria. “Gordailu solidarioetan egiten dudan inbertsoaren bidez, errentagarritasun bermatua lortzen dut eta bide batez nire diruak beste pertsona batzuei aurrera egiten laguntzen die.”

bbk

Solidarioa

Badatoz Ferixa Nausikoak!



Badatoz aurten be, konturatu orduko, Elorrioko Ferixa Nausikoak. Irailaren 4an hasi eta 14a arte festa giroa izango da nagusi herriko kale eta plazetan, urteroko hitzorduari utsiz. Ofizialki hilaren 5ean hasiko dira jaiak, egun horretan botako dabe-eta txupinazoa. Danborradako kideek izango dabe jaietako hasiera emoteko ardura.

Azoka da Elorrioko jaien oinarria. 1752an egin eben lehenengo feria, herritarrek salgune baten beharra ikusten ebelako. Aste osokoa izaten zen orduan azoka, eta egun horreek jai egun izatea adostu eben. XIX. mendean arazoak izan zitueen, eta urte luzez etenda egon zen ospakizuna. 1983an ekin eutsien berriro elorriarrek zita garrantzitsu hau antolatzeari, kasu honetan egun batez soilik, iraileko lehenengo domekan. Egun berezi horren inguruko egunetan herritarrek disfrutatzeko moduko bestelako ekitaldiak be prestatzea erabaki eben.

Azokaren garrantzia jaiak iragartzen dituen kartelean islatuko da aurten. Asto bat da irudiko protagonista; bere begia ageri da betileak koloreztatuta dituelarik. Tradizinoa eta modernitatea uztartu nahi izan ditu Karlos Erizek, kartel lehiaketaren irabazleak.

Irailaren 6an, Aldatzekuan ez da faltako abelburu

eta barazkirik. Nekazariak euren produkturik onenak ekarriko ditue Elorrion, eta bertara hurreratzen direnek eskaintza zabal hori ikusi ahal izango dabe, erosteko aukera izateaz gainera.

Idi-proba lehiaketa

XLVI. edizinoa beteko dau aurten Idi-proba txapelketak. Usadio zaharrak bizirik dirau oraindino, eta gure eskualdean herri askotan ikusi leitezkez idiak harriari tiraka. Elorrion hainbat egunetan izango dira saioak, eta irailaren 14an ospatuko da azken eta erabakiorra.

Ikuskizuna

Batez be, kalean ospatzen dira Ferixa Nausikoak; eguraldia lagun bada, behintzat. Herriko makina bat kaletan izango da giroa, jai alaitzeko betebeharra daukien taldeen laguntzaz.

Era guztietako doinu eta ikuskizunak hartuko ditue Elorrioko kaleak, eta horixe gertatuko da, adibidez, hilaren 6an. Munduko dantza eta musikei eskainitako tartean, Afrikako kultura ekarriko dau Ballet Jammu taldeak. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ikuskizun berezi hori.

162.000 euroko aurrekontua dauka Udalak jaien prestaketarako. Guztia prest dago. Danbor hotsak entzun leitezke, arranak eta musika doinuak be bai.

Danborradako kideek izango dabe jaietako hasiera emoteko ardura

Tradizinoa eta modernitatea uztartu gura izan ditu Karlos Erizek kartelean



IRAILAK 4, Barikua

- 18.00• Plazako frontoian: Pilota Partiduak. Elorrioko pilotariak
- 22.30• Txosnagunean: kontzertua LOR + KOP
- 00.00• Ateneoan: disko festa. DJ Gaizka. Reggae, dub, Hip Hop.

IRAILAK 5, Zapatua

- 11.00• Hirigunean: Txirrindulari Lasterketa: Emakumezkoen Espainiako Kopa. Elorrioko Txirrindulari Taldea
 - 11.30/17:00• Plazan: Haur Parkea
 - 19.00• Plazan: Txaranga. La Calle Es Nuestra
 - 19.30• Aldatzekuan: Txupinazora jaitsiera + Kale animazioa. Los pompers
 - 22.00• Plazan:Haur Parkea
 - 19.00• Aldatzekuan: Txupinazoa eta Entzierro txikia
 - 22.30• Plazan: Danborrada
 - 23.00• Gaztetxean: kontzertua.
 - 23.30• Urarkan: berbena.
- PERSUASIÓN
- 00.00• Hirigunean: kalejira
 - 00.00• Ateneoan: disko festa.
- KOGOLLO CREW. Elektronikak
- 00.45• Plaza: Akrobaziak eta Sua.
- ACROVISION

Danbor hotsez hasiko dira jaiak



Tradizino handiko ekitaldia da Elorriko Danborrada. 41 urte pasatu dira, dagoeneko, lehenengo aldiz kaleak zeharkatu zituenetik euren danborrak astintzen. Aurten, Danborradako kideak izango dira txupinazoa botatzeko ardura izango dabena. Pozik agertu da Mila Arroyo antolatzailea.

“Egindako lana herriaren aurrean baloratzen dabela erakusten dau txupinazorako gu aukeratu izanak”

Zelan hartu dozue albistea?

Ez dogu sorpresarik hartu. Izan be, aurreko urtean be gure izena aukeren artean egon zen, baina azkenean Erdella mendi taldekoek bota eben txupinazoa, 50 urte betetzen zituen-eta.

Zer esan gura dau, zuentzat, txupinazoa botatzeak?

Urte honeetan denetan egindako lana herrian baloratzen dabela erakusten dau. Gure lanak balio dauela ikusi geinke; jenteari asko gustetan jako Danborrada.

Pregoa be zuen esku itziko dabe orduan...

Bai. Jente guztia, gazte zein heldu, ondo pasatzera animatuko dogu. Horretaz gainera, gazteriarri inplikatzeko deia egingo deusagu. Ondo dago laguntza emotea, baina horregaz bakarrik ez da nahikoa. Gehiago inplikatu behar dabe gazteek.

Ez dabe parte hartzen ala?

Gitxi. Iturrizoro kultur elkarten batzordean be banabil ekitaldiak eta abar prestatzen, eta elkarte gastronomikoetako gazteengan ikusten da hori, adibidez. Jaietan be, lehengo gauza

Modas INES

ONDO PASA JAIENTAN

San Juan, 10 - behea
Tel.: 946 583 019
48230 ELORRIO - Bizkaia

**SOLOZABAL
DEKORAZIOA**

URARKA, 14-15 • 94 682 03 92 • ELORRIO (BIZKAIA)

izara

Lentzeria
eta
Dekorazioa

urarka kalea 3
Tel.: 94 682 00 53

batzuk berreskuratzen saiatu izan gara, baina horretarako lan asko egin behar da.

Zelan igongo zarie jaiiei hasiera emotera? Danborrak eroango dozuez?

Ni baserritar jantzita joango naz. Azken urteetan halantxik joan izan naz txupinazora, eta aurten be bardin irtengo naz.

Zer paper betetzen dau Danborradak Ferixa Nausikoetan?

Ekitaldi garrantzitsua da. 41 urte daroaguz kontu honegaz. Ni Elgetan hazitakoa naz, eta bertan ikusita ekarri genduen ohitura hau.

“Gazteei ekitaldietan gehiago inplikatzeko deia egingo deutsegu”

Zelan prestatzen dozue ikuskizuna?

Elorrioko jaiiek gauza txar bat daukie: abuztua pasatu eta segituan direla. Horregaitik, beti larri-larri ibiltzen gara entseguekin. Jentea oporretan egoten da abuztuan, eta uztailean be gatxa izaten da jentea batzea.

Zenbatek parte hartzen dozue?

100 inguru izaten gara, batzuetan gehiago besteetan gitxiago. Deialdia ahoz aho egiten dogu, baina jenteak badaki noiz den sasoia.

Helduen eta umeen danborradak ospatzen dira...

Bai. Helduena jaiak zabaltzeko izaten da, eta umeena bukaera emoteko.

Aurten material barria be izango ei dozue...

Bai. Kupel barriak izango doguz. Besteek 30 urte inguru zeukiezen, eta dagoeneko ez zegozen egoera onean; benetako kupelak ziren. Orain danbor estilokoak izango dira, baina gainean zuragaz.

Plazan bakarrik ez zarie ibiltzen, halan be.

Ez. Plazan hasi eta elkarerik elkarte joaten gara, giro onean. Azkenekoan, *Pakito txoko-*

latero, Athleticen ereserkia eta abar irtetzen dira.

Kanpoko jenteak be parte hartzen dau?

Kanpoko jente batek interes handia erakusten dau. Katalunia, Granada... meritu handia daukie. Lagun batek, kamioian doala ikasten ditu abestiak.

Errepertorioan sartuko dozue aurten kanta barririk?

Hor gabilz duda-mudan. *Mutrikuko martxa* sartzeko asmoa daukagu. Gainera, kanta barriekin jentea motibatzen ete den be jakin gura dogu. Bestalde, igaz *Debako martxa* estreinatu genduen, eta jenteari asko gustatu jakon. Dantza edo mogimendurako aukera emoten eban. Aurten be mantenduko dogu.

Zelako jaiak dira Ferixa Nausikoak orokorrean?

Giro aparta egoten da, eta nekatu arte egoten gara kalean, ekitaldiz ekitaldi. Beharbada inplikazio eta parte-hartze handiagoa izan beharko leukie; Elgeta moduko herri txiki batekoa izanda, hori faltan botatzen dot.

Zer ekitaldi nabarmenduko zeunke? Nora ez dozu inoiz huts egiten?

Danborradaz aparte, Sukalki Egunean beti egoten naz. 1.000 lagun inguruk parte hartzen dau, eta itzelezko "saltsa" egoten da. Bestela, Koadrilen Eguna, Gazte Eguna... gauza ugari egoten dira Elorrioko jaietan.

“Kanpoko jenteak be interesa erakusten dau; meritu handia daukie”

“Ferixa Nausikoetan nekatu arte egoten gara kalean, ekitaldiz ekitaldi”

**IRAILAK 6, Domeka
Ferixa Eguna**

- 10.00• Feriagunean: XXVI. Abere eta Nekazaritza Azoka
- 17.30• H.Azkarate frontoian: Afizionatu mailako esku pilota partiduak
- 18.00• Plazan: Munduko dantzak eta musikak. BALLET JAMMU
- 19.00• Aldatzekuan: Erromeria. REX taldea
- 19.30• Plazan: Bertso saioa. MIREN AMURIZA, ETXAHUN LEKUE, ARKAITZ ESTIBALLES, FREDI PAIA
- 23.00• Plazan: suzko zezenak
- 20.30• Txosnagunean: Kontzertua. ANJE DUHALDE
- 22.30• Plazan: Suzko zezena. Errugbi taldea
- MARIATXIEN GAUA:**
- 23.00/23.30/24.00• Plazan/Portalekuan/Pipon: VIVA MÉXICO
- 23.00/23.30/24.00• Urarka plazan/Beheko tabernetan/Urarka kalean: MARIACHI GUADALUPANO
- 23.00/23.30/24.00• Tangerren/Gurian/Alkartun: MARIACHI GARIBALDI

GREMIOEN KOORDINAZIOA
ETXAURREAK
BASERRIEN ERABERRITZEAK
TEILATUAK
ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEAK
LOKAL KOMERTZIALAK

Azulejoak-Zoladurak
Higiene-ontziak-iturriak
Bainugelako altzariak eta osagarriak
Bainugelako manparak
Sukaldeko altzariak
Horma -armairuak



CERAMICAS SELLA

ERAKUSKETA:

San Pio X, 21 48230
ELORRIO / Bizkaia

Tel.: 94 623 18 38

e-mail: sella@telefonica.net

IRAILAK 7, Astelehena
Koadrilen Eguna

(Ez ahaztu koadrilaren kamiseta)

- 11.30/17.00• Urarkan: Haur Parkea
- 14.00• Aldatzekuan: Kuadrilen arteko bazkaria
- 14.00-17:30• Aldatzekuan: Animazioa. SIENTA LA CABEZA
- 18.00• Aldatzekuan: Koadrilen jaitsiera. LA BOHEME CAN-CAN
- 18.30• Urarkan: Umeendako berbena. ATXIKISTAN
- 19.00• Plazan: Koadrilen arteko jokoak
- 22:00-23.00• Txosnagunean: erromeria. AMAIUR
- 22.45• Plazan: Suzko zezena. Errugbi taldea
- 23.30• Plazan: Disko festa. ABIBA DISKOJAIA

IRAILAK 8, Martitzena

- 11.30/17:00• Plazan: Haur Parkea
- 18.00• Plazan: Perkusio tailerra. TAMSNA. Gazteak eta helduak
- 18.30• Eleizalden: Futbol partiduak
- 19.30• Aldatzekuan: Erromeria. ZURRUZT TALDEA

Kirolak be izango dau lekua jaietan

Herriko kirol taldeek egitarauan zeresana eduki dabe



Kirola osasuntsua da praktikatzen denean, eta askotan espektakulua be bai kanpotik ikustean. Bada, bietarako aukera izango da, aurtan be, Ferixa Nausikoetan.

Pilotalekutik hasita, partidu erakargarriak ikusteko aukera izango da irailaren 6an, azoka egunez. Elorrioko afizionatu mailako pilotariak euren dohaiak erakutsiko ditue; ikuskizuna emoteko gai direla be bai.

Idi-proba Txapelketaz gainera, irailaren 13an herri-kirol erakustaldia izango da plazan, eguerdiko 13:00etan hasita

Herriko taldeak

Hainbat talde dagoz Elorrion kirol munduan mogitzen direnak, eta guztiek antolatu dabe ekintzaren bat jaietarako. Ekintza horreetako batzuk txapelketen barruan kokatzen dira, baina aipagarria da herritarrek parte hartzeko ekitaldiak be prestatzen ditueela. Esaterako, Txirrindulari Elkarteak Emakumeen Espainiako Kopako lasterketa bat eroango dau aurrera irailaren 5ean, eta, horregaz batera, Ginkana proposatu dau hilaren 9rako.

Futbola maite dabenek Eleizalden izango dabe aukera. Martitzenean futbol partiduak jokatuko dira arratsaldeko 18:30etik aurrera. Kiroldegian, aldiz, futbito norgehiagokak izango dira irailaren 12an, 16:30ean hasita.

Errugbi taldeak, bestalde, suzko zezena antolatzeko ardura hartu dau bere gain.

Herri-kirolak

Zelan ez, ezin falta Idi-proba Txapelketa. Aurtengoa XLVI. edizinoa izango da, eta hilaren 14an egingo da azkeneko saioa. Aurreko egunean be herri-kirol erakustaldia izango da plazan, eguerdiko 13:00etan.

Txirrindulari Elkarteak Emakumeen Espeiniako Kopako proba antolatu dau 5erako; Ginkana proposatuko dau 9an



MAPFRE

 DON TELLO KALEA, 10

 48230 ELORRIO

 ☎ **94 658 24 48**

 📠 **94 658 33 54**

ALBAÑILERIA

KURUTZONDO



 Elizburu 46-48, lonja

 Tel.: 94 682 10 79

 Tel./Fax: 94 682 00 50

 48230 ELORRIO

 (Bizkaia)

Lau bertsolari gazte bizkaitar

Elgorrioko jaien egitarauaren barruan era guztietako ekitaldiak antolatu ditue, eta horreen artean bertsolari-tzak be lekua izango dau. Irailaren 6an, Ferixa Egunean, izango da bertsoagaz zita, arratsaldeko 19:30ean. Maite Berriozabal berriztarrak gidatuko dau plazan eskainiko daben saio hori.

Ohiturazkoa bihurtu den ekitaldia dogu Ferixa Nausikoetako bertso saioa. Bertso eskolak antolatu ohi dau, eta jentearen arreta jasozten dauen saioa da. Aurten be parte-hartze polita izango da bertan, plaza asko egiten dabilzen lau bertsolari-gaz: Fredi Paya, Arkaitz Estiballes, Miren Amuriza eta Etxahun Lekue. Ondo jositako bertsoak ez eze, seguru gatza eta piperra be ekarriko dabela Elorriona. Eskualdeko ordezkaria be izango dogu: Amuriza gazte berriztarra.

Txapelketatik gertu

Ferixa Nausikoetako bertso saioa data esanguratsuan izango da. Izan be, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa udazkenean hasiko da, eta lau bertsolari-ek bertan hartuko dabe parte. Euren mailarik onenean izango dira, beraz.



IRAILAK 9, Eguaztena

•10.30• Plazan: ZALDIA LAGUN.

Ume eta gaztetxoentzat

•15.30• GINKANA.

Elgorrioko Txirrindulari Taldea

•16.45• Plazan(*): Umeentzako tailerrak. Txintxirri ikastola

•18.15• Plazan: Txokolatada.

Txintxirri ikastola

* Euria bada, kiroldegian

IRAILAK 10, Eguena Gazte Eguna

•12.00• Aldatzekuan: Igel txapelke-



BETSAIDE, S.A.L.

KALITATE GORENEKO FUNDIZIOA

Teléfono 94 658 45 60

Fax 94 658 45 61

Betsaide, 1 • Aptdo. n.º 13 - 48230 ELORRIO
(Bizkaia - España)

FERIXA NAUSIKOAK 09

BIKALE
errebonbillo kalea, z/b
Tel.: 94 658 27 48

FRONTIS
Pintxoak · Bokatak · Iberikoentzakoak
BAR
Tel. 94 658 30 39
Ereka kalea 2
Eloio BIZKAI

CAFETERIA
IRISARRI
"Enri"
Tel.: 94 658 31 16 | Eloio (Bizkai)

ATERPE TABERNA
musiko arriola z/g
Tel.: 94 658 48 37

PORTALEKUA
EUSKAL PRESOK
PORTALEKURA

PARRA taberna
parraparrataberna.com www.parrataberna.com

XNR
taberna
GOSARIAK - PINTXOAK - BOKATAK
BERRIOTXO 43, 48230 ELORRIO - TEL. 94 658 34 63

gari taberna
PINTXOAK ETA
BOKATAK
Tel.: 94 658 30 39
Eloio (Bizkai)

busti zaitez jaietan!

Parte hartzean murgilduta



Gauero giroa aparta izan ohi da Elorriko jaietan, baina egunez be eskaintza zabala izaten da. Herritarrek egunez be bizi dabe jaia, eta askorentzat tarte horretan antolatzen diren ekitaldiak dira gustukoena. Parte-hartze handia daukan ekitaldietako bat sukalkia da.

Sukalkian parte hartzen dabenek izena emon behar dabe goizean, eta eguerdirako prest eduki behar dabe jakia

Ferixa Nausikoetako bigarren zapatua, Sukalki Eguna da Elorrion. Aurten hilaren 12an ospatzea tokatzen da, eta seguru lagun talde ugari elkartuko direla goizean goizetik lapiko eta kazuelen bueltan. Taldeek izena emon behar izaten dabe goizean, eta eguerdirako prest eduki behar dabe euren jakia. Joxe Ramon Lazkano antolatzaileak azaldu dauenez, lehiaketara aurkezteko baldintzak ez dira aldatu, aurreko edizinoetara begiraturaz gero.

Parte-hartzea hizpide izanda, ezin ahaztu koadrilen papera. Irailaren 7an ospatuko dabe euren eguna, bazkari, jaitsiera eta jokoekin. Egun polita, zalantzarik barik.

ta. Jubilatuen artean

- Gaztetxean: GAZTE EGUNA. Bazkaria, rokodromoa eta abar.
- 22.00• Probalekuan: XLVI. Idi-proba Txapelketa
- 22.30• Gaztetxean: 'Chavalillo del Rock', Elorrixoko taldeak

IRAILAK 11, Barikua Jubilatuen Eguna

- 11.30/17.00• Urarkan: Haur Parkea
- 11.00•Sortzez Garbiaren basilikan, meza hildako jubilatuen oroimenez
- 13.00• Aldatzekuan: Elorriko jubilatuentzat luntxa
- 18.30• Urarkan: Umeentzat animazioa. MUSIKA TRESNEN FABRIKA

JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK



Salmenta eta konponketa



HONDA

STIHL

SAME

BCS

CARON

VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03





CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA

Berrio-Otxoa kalea, 5 • Tel.: 94 658 27 61

48230 ELORRIO • Bizkaia

- 19.00• Aldatzekuan: Erromeria eta dantza txapelketa jubilatuentzat OIHERGI taldea
- 20.00• Plazan: Euskal erromeria. ZEINA
- 22.00• Probalekuan: XLVI. Idi-proba Txapelketa
- 23.00• Urarkan: Berbena. ORQUESTA DE MUJERES
- 23.00• Gaztetxean: Kontzertua
- 00.00• Ateneoan: Disko Festa. DJ BUDIN. Musika beltza

IRAILAK 12, Zapatua Sukalki Eguna

- 08:00• Aldatzekuan: Sukalki Eguna. Izen-ematea eta erreserbak.
- 11:30/17:00• Plazan: Haur Parkea
- 16.30• Kiroldegian: futbito partiduak
- 17.30• Aldatzekuan: Euskal kanta eta erromeria. BENTAZAHARREKO MUTILAK
- 18.00• Plazan: Txokolatada
- 18.30• Plazan: Zezentxoak
- 20.00• Hirigunean: Kale animazioa. LA RUSTIC ARLAND BAND
- 22.00• Probalekuan: XLVI. Idi-



Musika bazter guztietan

Herrian zehar, hainbat gunetan banatu ditue ekitaldiak

Urtero legez, Ferixa Nausikoak musikaz blai datoz aurten be. Herriko hainbat puntutan banatuta, deneriko musika eskaintza izango dabe elorriarrek. Adin guztietako jenteak izango dau bere gustuko estiloer gozatzeko aukera.

Txosnagunea

Jarraitzaile aldetik kontzertu handienak Txosnaguneak hartuko dituenak izan leitekez. Batez be, gazteei begira antolatu dira bertako ikuskizunak, baina rocka ez da izango estilo bakarra: erromeriak eta euskal musikak be lekua izango dabe eskenatokian.

Barikuan, irailaren 4an, Lor eta Kop taldeek emongo deusie hasiera musika egitaruari.

Elorrioko Lor taldeak bere hirugarren lana aurkeztuko dau irailaren 4an herritarren aurrean: 'Rock Terapia'

Elorrioko talde gazteak bere hirugarren lana aurkeztuko dau herritarren aurrean: *Rock Terapia*. Balada eta abesti lasaiak egiten trebeak izan arren, rockgazko konpromisoa erakutsiko dabe Lander, Kimetz eta Ramirok. Eurentzako terapia edo ihesbide dena ikusleei azaltzen saiatuko dira, *Zure doinua* lako arrakastak ahaztu barik.

Txosnaguneko egitarauan Su Ta Gar nabarmentzen da; kontzertu mordoa bizkarrean, baina oraindino gazte

Kop taldeak doinu gogorragoak ekarriko ditu Kataluniatik. Euskal Herrian jarraitzaile asko dituen banda dogu Kop; Durangaldean be sarri izan dira, eta gazte ugari batu izan ditue. Gatazka sozialak, okupazioa edo elkartasun internazionalista hizpide izango ditue kataluniarrek, beti be gitarra sendo eta bateria erritmo biziz lagundurik. Juanrraren ahots urratuak egingo dau hortik aurrerakoa.

Baina, beharbada, Txosnaguneko egitarauan Su Ta Gar taldea nabarmentzen da. Disko eta kontzertu mordoa bizkarrean, baina oraindino gazte. Eibartarrek eboluzionatu egin dabe euren karrera musikalean, baina hasierako esentzia mantentzen dabe oraindino. Lehenengo diskoetako abesti esanguratsuenak berreskuratu ditue euren kontzertuetan, euren musikaren fan sutsuenen zorionerako. Su Ta Garren telonero lanak Namek Planet taldeak egingo ditu; elorriar gaztez osatuta dago talde hori.



- + Eguneko menua
- + Okela eta arraina erreta

Tel: 946 582 912 / 669 302 686 • Elorrio (Bizkaia)

BANAKETAK
MIOTA S.L.



Miota, 6 48230 ELORRIO Tel: 94 623 18 92



Bestalde, Feria Egunean, irailaren 6an, Anje Duhaldek emanaldi lasaiagoa eskainiko dau, iluntzeko 20:30etik aurrera. Gazte eta ez hain gazteak elkartuko dira Anjeren kontzertuan. Hurrengo egunean, ordea, erromeria doinuak nagusituko dira Amaiur talde bizkaitarraren eskutik.

Bentzaharreko mutilek girotuko dabe Sukalki Eguneko bazkalostea; Joselu Anaiak taldeak be joko dau gauetz

Kalez kale

Elorrioko beste kale eta plaza batzuetan be ez da faltako musika eta dantzarik. Urarkan, Aldatzekuan eta plazan berbena dezente ospatuko dira datozen egunetan. Kasu gehienetan, beste ekimen batzuen lagungarri lez antolatuko dira berbena horreek. Horixe gertatuko da, adibidez, Sukalki Egunean: Bentzaharreko mutilak taldeak girotuko dau bazkalostea Aldatzekuan.

Urarkako oholtzatik talde asko pasatuko dira. Txikiendako Atxikistan izango da hila-

ren 7an, jubilatuentzako Ohiergik jarriko dau musika 11n, eta Joselu Anaiak talde beteranoa 12an ariko da.

Horretaz gainera, aipatzekoa da irailaren 6rako Mariatxien Gaua antolatu dela. Kale eta taberna inguruak mexikar doinuekin berotuko ditue Viva Mexico, Mariachi Guadalupano eta Mariachi Garibaldi taldeen eskutik.

Gaztetxea

Kontzertu txikiagoen topaleku izango da Elorrioko Gaztetxea. Gustuko taldeak ikusi zein barriak ezagutzeko aukera eskainiko dabe bertan; gainera, talde horreek hurretik jarraitu ahal izango dira.

Aipatzekoa da Chavalillo del Rock ekimena. Urterik urte antolatuz, ohitura bihurtu den ekitaldia da Elorrioko musika taldeek egiten dabena. Eguen gauean ospatuko da esangura berezia daukan kontzertu hau.

Ateneoa

Musikaren espektroa ez da itxia Elorrion, eta Ateneoko eskaintza da horren adibide. Musika elektronikoa izango da bertako eskaintzaren protagonista nagusia aurtengo jaietan, hainbat Djren emanaldiek.

- proba Txapelketa
- 22.30• Plazan: Kale animazioa. TANDARICA ORQUESTA
- 23.30• Txosnagunean: Kontzertua. NAMEK PLANET + SU TA GAR
- 23.30• Urarkan: Berbena. JOSE-LU ANAIK
- 00.00• Ateneon: Disko festa. DJ TEO + ROJO. Elektronika

IRAILAK 13, Domeka

- Goizean• Plazan: KAINABERaren elkartasun jaialdia
- 13:00• Plazan: Herri-kirolak
- 17:00• Plazan: Umeen danborrada
- 19:00• Hirigunean: Kale animazioa. GICANI-CIA
- 19:00• Aldatzekuan: Berbena jubilatuentzat. IRUSTA taldea
- 21:30• Plazan: Suzko zezena. Errugbi taldea
- 22:00• Errugbi zelaietan: Suzko erruberak. Astondoa Piroteknia

IRAILAK 14, Astelehena

- 22:00• Probalekuan: XLVI. Idi-proba Txapelketa

Peluqueria
LUCY
Maipaindegia
BELÉN *Estetika*
Ibaiondo, 11 Tf: 94 682 05 03

EROSKI bidaiak
zurekin
ONDO PASA FERIXA NAUSIKOETANI
Nizeto Urkizu 16 - 48230 ELORRIO (Bizkaia)
Tel. 94 603 06 49 Faxo 94 603 20 02
v2616@roskieroski.es www.viajerosroski.es

ORBELA
Lora eta opari denda
94 658 32 94 ELORRICO

94 658 29 96
630 64 35 99
Nizeto Urkizu (4. behe) Elorrio (48230) Bizkaia
NUKIE

Umeek be handi biziko ditue jaiak

Parkeak, berbenak eta tailerrak antolatu ditue etxeko txikieneztat bereziki, eurek be jaietan disfrutatu daien

A din guztietako herritarrek izango dabe ederto pasatzeko aukera aurtengo Ferixa Nausikoetan. Hori bai, jaietara itxaroten dagoenik badago, horreek umeak dira.

Ekitaldi ugari prestatu ditue aurten Elorrioko umeendako. Haur Parkea izango da hilaren 5, 7, 8, 11 eta 12an. Ordu luzez jolasteko aukera izango dabe txikienez, puzgarri eta enparauekin. Irailaren 7an, gainera, berbenagaz dantzatzeko dabe: Atxikistan taldeak joko dau arratsaldeko 18:30ean Urarkan.

Zaldiak eta tailerrak

Irailaren 9an, eguaztenean, zaldiak ezagutzeko aukera izango dabe goizeko 10:30ean, plazan. Arratsaldean, tailerretan eta txokolatadan parte hartu ahalko dabe.

Haur Parkea izango da hilaren 5, 7, 8, 11 eta 12an; irailaren 7an, gainera, berbenagaz dantzatzeko dabe

Irailaren 9an, eguaztenean, zaldiak ezagutzeko aukera edukiko dabe umeek goizeko 10:30ean, plazan



Animazinoa

E lorrioko jaiak zeozergaitik bereizten badira, kaleko animazino eta giroagaitik da. Ekimen gehienak kalean ospatuko dira, eta giroa alaitzeko ekintzarik ez da faltako: entzierroak, suak eta animazinoak.

Irailaren 5ean, La Calle Es Nuestra txarangak txupinazoaren aurreko minutuak girotuko ditu plazan, eta Los Pompers-ek be erakustaldia egingo dabe Aldatzekuatik hasitako jaitsieran. Hilaren 7an, Koadrilen Egunean, Sienta La Cabeza eta La Boheme Can-can-en txanda izango da, eta 12an La Rustic Arland Band eta Tandarica Orquesta ariko dira, lehenengoa arratsaldez eta bigarrena gauetz. 13an, barriz, Gicani-cia taldeak animatzeko ditu elorriarrak, 19:00etan hirigunean.

expert  **CORDEVI**

SUKALDERAKO
ALTZARIAK


ARRINDA
Electro - TV- Video - HiFi

**KONPROMISO
GABEKO
AURREKONTUAK**

Erreka, 19
☎ 94 623 17 70
☎ 94 658 48 60
48230 ELORRIO (Bizkaia)

LEANIZ TRESNAK

Orain
Suministros Arga
LEANIZ TRESNATik
eramaten da



BASERRI TRESNAK
salmenta eta konponketa



Leaniz auzoa - 48230 ELORRIO - Bizkaia

 94 623 15 43

Jaietan be elkartasuna, Kainaberagaz

Ferixa Nausikoak amaierara heltzen ari direnean, irailaren 13an, bestelako ekitaldi bat izan ohi da Kainaberaren eskutik. Arazo ugari daukagu gure inguruan zein munduan, eta, jaiak dibertimendurako tresna izan arren, ordu batzuez laguntza behar dabenez elkartasunak hartzen dau garrantzia.

Jarduera sinbolikoa da Elkartasunaren Egunkoa. Batez be, Kainaberak egiten dauen lana ezagutzera emoteko aprobetxatzen dabe. Ekimenen bat aurrera eramateko dirua batzea eta kultur aniztasunaren nahiz kooperazioaren inguruko sentsibilizazioa zabaltzea dira egun horren helburuak.

Batez be, Kainaberak egiten dauen lana ezagutzera emoteko aprobetxatzen dabe Elkartasunaren Eguna

Munduko hainbat herritako egoera ezagutzera emoteko be lan egiten dabe, bitartekari lanaz gainera

1996an jaio zen Kainabera. Gobernu Kanpoko Erakundea da eta Elorrion beste herri batzuekiko elkartasuna, lankidetzeta eta garapena bultzatzeko asmoz sortu zen; kooperazio arloko proiektuak aurkezteko bitartekari lana be egiten dau, laguntza emoten daben erakunde publikoetan. Munduko hainbat herritako egoera ezagutzeko aukera emotea be lan ildotzat daukie: Kolonia, Errusia, Nikaragua, Tanzania eta beste zenbait herrirekin lan egiten dabe. Horretaz gainera, larrialdi egoerak dagozenez, kanpainen bitartez laguntza emoteko saiakera egiten dau elorriar taldeak.

Ezagunak dira udan laguntza behar daben umeak jasotzeko kanpainen eta informazioa hedatzeko erabiltzen daben Maiatzeko Hitzaldiak ekimena.

Karlos Eriz eta betiledun astoa

Elorrioko bideoegile honek kartel lehiaketa irabazi dau parte hartzen dauen bigarren aldian



Karlos Eriz elorriarrak irabazi dau aurtengo Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa. Sistema berezia erabili dabe aukeraketa egiteko: herritarrek erabaki dabe zein den onena, euren botoen bitartez. Iturri kultur etxean egon ziren ikusgai lanak, eta bere astoak erakarri zituen gehien boto-emaeleak.

“Betilearen kontuarekin jai kutsua emon gura izan deusat”, dino Karlos Eriz elorriarrak

Karlos Erizekin batu gara, berari buruz gehiago jakin guran. Kartel lehiaketa irabazi dauen arren, bera bideo-sortzailea dela argitu deusku. “15 urte daroadaz honezkero lan

horretan”. Eginbehar horretan be izan dau errekonozimendua: Lekeitioko Bideo Bileran, adibidez, saria eskuratutakoa da.

Astoa da bere irudiko protagonista. “Betilearen kontuagaz jai kutsua emon gura izan deusat”, dino elorriarrak. Noski, astoa Ferixa Nausikoek animaliekin daukien “loturagaitik” sartu dau kartelean. Bigarren aldian parte hartu dauena, eta “Elorrioko jaietan parte hartzearen” egin dauela azaltzen dau. Ez dauka asmorik beste inon aurkezteko.

Festazalea dela esan deusku Karlosek, eta Ferixa Nausikoak “kalean” bizi ohi dituela. Kaleko giroa dau gustukoena; batez be, koadriren artekoa. Lehen “koadrila gehiago” egoten zirela gogoratu eta faltan botatzen dau jai ha. Halan be, “jai onak” direla uste dau.

Azokan, haur parkean edo txosnetan ikusiko dogu Karlos, festarako gogoz eta umoretsu.

ITZIAR SAGARNA AZKARATE
NIF: 78868070-N

ilargi

Prentsa eta ogia
Musiko Arriola
48230 Elorrio
Tel.: 675 00 58 01

- Prentsa
- Aldizkariak
- Liburuak (Helduak, haurrek)
- Baserriko ogia eta ogi integrala
- Umeendako DVDak
- Creditrans txartelak


egunero gure zerbitzura

KAMIKOPIAK
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala



Berriotxo kalea 9 • Tel.-Faxa 94 623 14 31 • 48230 ELORRIO
• kamikopiak@kamikopiak.com •

Herritarrek aukeratutakoa



Karlos Eriz elorriarrak irabazi dau jaiak iragartzeko kartel lehiaketa, 'Jaietarako prest' izeneko lanarekin. Irudiko astoaren begia ezagun egingo da, segurutik, aurtengo Ferixa Nausikoetan.

Kartela aukeratzeko lanean paper garrantzitsua jokatu dabe herritarrek. Izan be, Iturri kultur etxean ikusgai jarri zitueen uztailean lehiaketara aurkeztutako lanak, eta botoen bitartez erabaki eben noren irudia izango den jaien aurkezle. Hemen daukazuez sariketako finalistak.



IRABAZLEA:

Karlos Eriz
(JAIETARAKO PREST)

Ereka 20
arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo



Tel 94 623 18 47
Erreka kalea 20, 2. A - Elorrio

URREGI SL

- Bainugelako altzari eta komun-ontziak erakusgai
- Zaharberritze eta mantenu lanak

Carlos Villaescusa - Aitor Igarza

Claudio Gallastegi, 2 • Tel.: 94 682 04 99 • Faxa: 94 658 28 94 • 48230 ELORRIO (Bizkaia)



Galdaragintza

Oidor Berriozabalbeitia, 10
Tel.: 94 658 45 47
Fax: 94 658 28 88
48230 ELORRIO (Bizkaia)

Eugenio Sánchez
Agustín Urten

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketak
Kristalizatuak eta abar

Goietak, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

ELORRIO

Pisuak salgai:

- 1,2 edo 3 gelakoak, ganbararekin.
- Garaje itxia, ate mekanizatuarekin.



Bi bizitzako adosatuak:

- Partzela eta garajearekin.



- **Isolamenduen kalitatea laborategian bermaturik.**
- **Hartu parte zure bizilekuaren diseinuan.**
- **Zure neurria moldaturiko finantziazioa.**
- **Bisita gidatuak egiten ditugu obrak dirauen bitartean.**
- **Obraren planoak webgunean ikusgai.**

ZARATE  **ELEXPE**
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga, 19 behea • 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 681 66 73 • www.zarateylexpe.biz

GARAI



ARRAZOLA AUZOA



GEREDIAGA AUZOA



Argazkiak: Hamabi Harri

Gutunak @

AHTaren aurkako kanpaldia edo kolektiboaren magia

Aurtengo AHTaren aurkako kanpaldia hasi baino lau egun lehenago lagun talde bat elkartu ginen Izurtzako plazan muntaketa ekiteko. Aulki batzuk behar genituen eta bertako tabernariari eskatu genizkion. Kontuz ibiltzeko, ez puskatzeko eta erabili ondoren bueltatzeko agindu zigun, aulkiak uzten zizkigun bitartean. Normala da mesfidati egotea zure herria ezezagunez gainezka ikusten duzunean.

Izurtzak bere herria utzi digu aurtan akanpada burutzeko, eta horretaz gain oso harrera ona eta tratu bikaina eman digu bildu garen ehunka lagunoi. Izurtzako herriari bihotz-bihotzez eskertu nahi diogu hau guztia.

Erresistentzia eremu honetan bildu garenok AHTaren eta egitasmo desarrollista guztien aurka egoteaz gain, bestelako jendarte eredu ere aldarrikatzen dugu. Eta kanpaldiak iraun bitartean praktikan jartzen dugu guk nahiko genukeen jendarte antolakuntza, utopia errealtate bilakatzen dugularik.

Guk geuk antolatzen dugu kanpaldia, era horizontalean, inongo buru edo hierarkiarik gabe. Asanblada irekia dugu gure jardura guztiak kudeatzeko tresna, eta parte-hartzaile guztiek eman dezakete bere iritzia bertan. Horren bitartez harzen ditugu erabakiak, denon artean, era adostu batean.

Berrehun eta piko lagun arteko komunikazioa ez da bate-re erreza. Elkarren arteko errespeto handia eta dinamizazio ona eskatzen ditu horrek. Estatuko eta Europako jende asko etorri denez kanpaldia, asanbladaren berezko zailtasunari hizkuntzen aniztasuna gehitu zitzaion. Urtero bezala nahi zuenari euskaraz hitz egiteko eskubidea bermatu zaio bat-bateko itzulpen talde esker. Nazioarteko akanpada euskalduna izan dela esan dezakegu. Lan kolektiboaren bitartez prestatu eta burutu ditugu otorduak, hitzaldiak, tailerrak, mendi-zein txirrindu-martxak, antzerkiak, musika emanaldiak... Harrigarria da zenbat gauza egin dezakegun lagun askoren artean. Individualismoarekin apurtzen dugunean lan amankomunaren magia deskubritzen dugu. Ehunka lagun egiturarik gabe jende multzo bat besterik ez da. Baina antolatzen eta egituratzen denean kolektibitatea ehunka inurriek osatutako izaki biziduna bilakatzen da, eta bere kabuz funtzionatzen du. Izugarriko ahalmen eta potentziala dauka izaki kolektibo horrek eta demokrazia ordezkatzailaren ezinbestekotasuna zalan-zalan jartzen du.

Eta ekintzak ere era kolektiboan burutu ditugu. Durangaldean dagoen AHTaren lan eremura sartu ginen ehun lagun inguru. Desobediencia oinarritutako ekintza masiboa izan zen. Lan eremuaren okupazio tenporala gauzatu, guztiona dena, lurra, berreskuratzen genuen tarte batez.

Aldez aurretik markatutako helburua bete genuen, beraz. Argi geratu zen errepresio poliziala jasotzen ez badugu era bakes-tsu, alai eta tinkoan aritzen garela. Urbinako lan eremuaren

okupazioaren helburua eta prozedura berbera izan zen gure alde-tik, baina hamarnaka zauritu eta zortzi atxilotuko emaitzarekin bukatu zen. Honek argi uzten du poliziaren interbentzio bortitza izan zela bi ekintzen arteko ezberdintasun nagusia. Urbinan gertatu zenaren ondoren bilduritu baginen ere, gaur beldur hori gainditu egin dugu. Indarberriak atera gara. Aurtan ere jende askok hartu dugu parte kanpaldian eta izugarriko giro polita egon da parte-hartzaileon artean. Gure harremanak sendotu egin dira, eta konfidantzazko sareak iruten jarraitu dugu. Eskerrik asko etorri zareten guztioi.

Akanpada bukatu ondoren desmuntatzea hasi da. Izurtzako tabernariarengana jo dugu berriro aulki eta mahaien eske. Nahi adina hartzeko esan digu, irribarre zabal batekin. Oraingo honetan bere ahotsean ez dago mesfidantza izpirik.

AHTaren aurkako asanblada

Klik batean @



Mendia garbi mantendu daigun

Ekainak 21ean Anboto Kilometro Bertikala korritu zen, eta antolakuntza bikainari esker, dena primeran irten zen. Baina ia hilebete geroago mendira joan, eta oraindino jaitsierako bidea markatzen eben propagandako plastikoak batu barik zegozela ikusi neban! Ahal izan nituenak batu egin nituen, baina ziur nago asko median itzi nituela. Holako ekintzetako antolatzaileak kapazak badira bidea markatzeko, gero mendia zegoen moduan izten saiatu beharko litzateke, behintzat. (Ainhoa Atorrasagasti)



Juanito Gallastegi

Mahai-inguruak

Sekulako arnasa hartu genduen orain hogeita hamalau urte inguru, eritziak izateko eta, edozein motatakoak izanda be, emoteko eta zabaltzeko askatasuna etorri jakunean. Orduantxe gehitu ziren (edo hasi ziren) irratietan eta telebistetan mahai-inguruak be izaten.

Era askotakoak izaten dira mahai-inguruak. Gai baten inguruan jarduten dabenak batzuk, gai bati eta besteri buruz dihardueenak beste batzuk. Zer esanik be ez, zaborreria hutsa izaten direnak be badagozela. Zer da besterik norberenak bakarrik diren hartu-emonei buruzko trapuzahar eta petralkeria guztiak entzule eta ikusle guztien aurrean azaltzea?

Hain ugaria den zaborreria hori alde batera itzita, mahai-ingurukideek erabiltzen daben edozein gai menperatzen badabe, zuzendu eta aberastu egin geinkez geure iritziak. Baina, zuhurtasunez hartu behar, beti, entzuten doguna, kaltegarri izan ez dakigun.

Nire ustez, gai garrantzitsu eta sakon asko dago mahai-inguruetan erabili behar ez liratekeenak. Eta ez gauzak azaltzeko askatasunaren aurka nagoelako, ezta antzik be! Mugatuak izaten diren mahai-inguruetan barik, minutu gehiago eta patxada gehiago behar daben gai horreek beste esparru batzuetan eta beste era batera erabili behar lirateke.

Mahai-inguruetakoz ezbaidetan, zarata gehien egiten dauena edo besteari gauzak patxadaz azaltzen izten ez deutsana edo berbetako erraztasun eta dotoretasun handia daukana edo aurpegi gogorrena daukana agertzen da, arrazoirik izan ezta be, arrazoia- ren jabe. Ez ete da holan? Horregaitik, zuhur egotea jagoku!

Gai askori buruzko mahai-inguruetan, harritzekoa da mahaikide gehienak gai guztietan hain jakitunak izatea. Leonardo da Vinci bera dirudie. Jakina, haren sakontasun barik.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko abuztuaren 28a - 8. urtea - 340 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



LAUHANKA >



Txakurrak beretzako lekua behar dau, lotarako zein txarto jokatzen dauenean bertara bidaltzeko

Behin behar dauen moduko ohea toki egokian jarrita, komeni da bertan finko mantentzea

Masajeak emonda, giharrak erlaxatzen lagunduko deusagu

Txakurrek be lasaitasuna behar dabelako

Lo leku finko eta erosoaz gainera, atentzinoa eta zainketa maitakorra behar ditue

Gure bizitzaren ia herena emoten dogu lotan. Badakigu guztiok oso garrantzitsua dela horretarako orduak hartzea eta ohea be egokia izatea. Txakurren kasuan, sarritan uste dogu edozein lekutan egin lekiela lo, eta euren gaitasuna atentzinoa be askotan ahaztu egiten dogu. Baina, horretaz berba egiten ez badabe be, garrantzia handia dauka txakurren ondo lo egiteak.

Txakurrek askotan jabearen alboan topatzen dabe lotarako leku egokia, sofaren alboan ipinita edo ohe gainera salto eginda. Hortik badago zer ikasia; hain zuzen be, hor ikusten da eurek zer gura daben lo egiteko.

Alde batetik, leku erosoak: zesta akoltxatu bat izan leiteke soluzinoa. Horrelako zestak animalien dendetan aurkitu leitekez, kokoen edo algen fibra daukien koltxoekin eginak; alfonbrak be

aukeren artean dagoz. Behin ohe espezial hori toki egokian jarrita, komeni da bertan finko mantendu daigun.

Bestetik, jabearen ondoan egon gura dabe, epeletan. Gure ohean sartzea ez da aukera onena, garbitasun aldetik begiratura ez da-eta egokia. Baina, esate baterako, gela berean ipini leiteke txakurraren lo-lekua.

Txakurrak leku propioa behar dau, eta horrela sentitu behar dau, erretiratu eta atseden hartzeko zein txarto portatzean bertara bidaltzeko. Komenigarria da leku hori aire korranteetatik aparte egotea.

Lasaitasuna

Gizartean zabaltzen dabilen gatxa da estresa. Hara eta hona, gelditu barik eta presaka. Ezetz uste dogu, baina gure sententzino

estresatuak txakurrari be transmitzen deusaguz. Aditu batzuen ikerketen ustez, txakurrak be gatx hau sufritzen hasita dagoz. Txakurrek lasaitasuna behar dabe, une askotan jolasten eta batetik bestera ibiliko diren arren.

Masajeak

Zainketa maitakorra izatea garrantzitsua da txakurrarentzat. Gustura hartzen ditu laztanak, eta masajeak emotea be ez dago lekuz kanpo. Masajeek giharrak erlaxatzen lagunduko deusie, indarra eta koordinazinoa hobetu eta flexibilitatea berreskuratzea-gaz batera.

Txakurraren eremu espeziikoetan hasi eta kolkoan jarraitu behar da masajea emoten, salean laztanduz amaitzeko. Dena dela, txakurra ezin da behartu masajea hartzera.

Urtebeteko katu arra daukat, eta bere kaxatik kanpora hasi da txiza egiten. Zergaitik da hori? Gaizka (Durango).

Lehenengo eta behin, Zistitisa lako gaixotasunak deskartatu beharko litzatekez, nahiko ohikoak dira-eta. Dena dela, altuera eta leku konkretu batean egiten badau, normalena beretzako lekua markatzen dabilela pentsatzea da. Kasu horretan, nire gomendioa katusa zikiratzea da, markatzeko joera hormonal delako. Bestalde, komenigarria da txiza amoniakoagaz ez garbitzea, hori eginez gero zeuk markatuko zeunke artifizialki lekua.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albaitari klinika

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Abuztuaren 29an, Urkiolan ERROGATIBARI EUTSIZ

Ohitarari eutsiz, San Roke lepoan hartu eta Urkiolara errogatiba egingo dabe, zapatuan, abadiñarrek. Meza nagusia izango dabe Santutegian, 11:30ean, eta, ondoren, Talde Batua dantza taldeak eskainiko dau ikuskizuna. Usadioak agintzen dauen legez, ardaoa be bananduko dabe bertaratuko direnen artean eta herriko nagusiek euredako bazkaria izango dabe. Zelaietan amaituko dabe eguna; afaria eta erromeria izango dira bertan.

DEIAK

DURANGO

- » **Odola emoteko aukera**, Eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emole elkarteak deituta.
- » **2008-2009 ikasturtean zehar euskara ikastaroak egiteagaitik diru-laguntza eskatzeko aukera**. Urriaren 9a arte egin leiteke eskaera, Udaleko erregistroan. Eskarien artean banatzeko 12.400 euro gorde ditu Udalak.
- » **2009an zehar kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzea-gaitik diru-laguntza eskatzeko aukera**. Urriaren 31a arte egin leiteke eskaera, Udaleko erregistroan. Laguntza horreetarako 9.000 euro gorde ditu Udalak. Euskara Sailaren bitartez

bideratuko ditue diru-laguntza horreek.

ERAKUSKETA

DURANGO

- » **'De la vida'**. **Xabier Egaña**. Abuztuaren 31 bitartean, Arte eta Historia Museoan eta Uribarriko Andra Maria basilikan.



ERMUA

- » **'Sahara: loreak basamortua'**. **Clemen Correderearen argazkiak**. Irailaren 1etik 6a bitartean, Lobiano kulturgunean. Komite Internazionalistak antolatuta.

JAIK

ABADIÑO

Errogatiba Eguna

- » **Santuagaz batera Urkiolara San Rokeren errogatiba**, abuztuaren 29an, 09:30ean, Andra Maria baselizatik irtengo dabe (Muntsaratz-Zelaieta-Mendiola-Atxarte-Txakurzulo-Urkiola). **Hamarretakoa** eskainiko deutsee Txakurzulon. **Meza nagusia**, 11:30ean, Urkiolako santutegian. Ondoren, **Talde Batua dantza taldeak** ardaoa dau ikuskizuna eta **ardaa bananduko dabe** hurreratu-ko diren herritar guztien artean. **San Rokegaz Andra**



Marira buelta egiteko hitzordua 18:00etan jarri dabe.

- » **Herriko nagusien bazkaria**, abuztuaren 29an, 14:00etan, Bizkarra eta Lagunetxe jatetxean. Ondoren, **dantzaldia** izango dabe, Bizkarran.
- » **Herri-afaria**, abuztuaren 29an, 20:00etan, Gaztañadin (euria bada Probalekuan izango da). **Lotxo taldeagaz erromeria**, 21:00etan.

ELORRIO

Etxebarriko San Agustin

- » **Meza**, uztaillaren 28an, 12:00etan Etxebarriko San Agustinen. **Txopo txikia** altxatuko dabe neska-



mutikoen, 19:00etan. **Triki-poteoa** hasiko dabe jarraian, Olazar elkarteak antolatuta.

- » **Auzo-afaria**, uztaillaren 28an, 21:30ean, Etxebarriko San Agustinen bertan. Olazar elkarteak antolatuta.

MALLABIA

Zengotita-S. Roman Nonato

- » **Txopoa altxatuko dabe**, abuztuaren 29an, iluntzean.
- » **Meza nagusia**, abuztuaren 30ean, 11:30ean, eta, ondoren, **Berrizko San Lorentzo dantzari taldeak** eskainiko dau ikuskizuna. Jarraian, **Dariola Txapelketa**.
- » **Herri-kirol saioa: Lapazaran + Zelai II.a + Zelai III.a**, abuztuaren 30ean, 13:00etan, eta **Bolo Txapelketa** be izango da, 17:30ean hasita.



anboto

Durangaldeko usaina ezin dizugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko, ...

ANBOTO astekariak egoitza berria dauka. Hemendik aurrera lurretako Bixente Kapanaga 9an aurkituko gaituzue.

anboto >
komunikabideak

www.anboto.org

Irati, Olatz eta Alazne trikitilariekin erromeria, 20:00etan.



» **Meza**, abuztuaren 31n, 12:00etan; 13:00etan, **Bolo Txapelketa**.

» **Asto probak: Narbaiza + Aterpe + Satsibar + Arbe**, abuztuaren 31n, 19:00etan. Ondoren, **karretila zotz egingo** dabe, jaiak agurtzeko.



bitartean egongo da bata edo bestearen alde egiteko aukera. Boto gehien eskuratzen ditueen



argazkiei 12 sari emongo deutseez eta 2010eko udal egutegian argitaratuko ditue. Gainera, boto gehien eskuratzen dituen argazkiak 300 euroko sari berezia jasoko dau (www.abadiano.org).

proiektuen erakusketa egingo dabe, abenduaren 7tik urtarrilaren 8a bitartean. Sari bakarra: 18.000 eurokoa. Udalak antolatuta (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

» **Sanfaustoak iragartzeko kartel lehiaketa.**

Azken eguna irailaren 5a, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) 12:00ak artean. Saria: 1.000 euro.



lagun birendako asteburu pasa landetxe batean; 3.a, lagun birendako egun pasa spa baten. Parte hartzaileen artean Mendiola jatetxean lagun birendako afaria be egingo dabe zotz. Beste alde batetik, 12 urte bitartekoen artean irabazleak 50 euroko erosketa txartela lortuko dau; 2.ak 40koa eta 3.ak, barriz, 30 eurokoa.

IURRETA

» **Aita San Migel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.**

Abuztuaren 28a bitartean, Udaletxean edo Ibarretxe kultur etxean, 14:00ak bitartean Saria: 480 euro.



MUSIKA

DURANGO

» **V. Gau Elektronikoa: DJ Jor-G (Habitual Fresh Sessions) + DJ Stan (Inox Azpeitia) + etxeko DJ-ak (Ruben Kostas & Iker Undersound)**. Irailaren 4an, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian.



ZINE-KLUBA

ELORRIO

» **'Hilean behin.dok': 'Hold me tight, let me go' dokumentala**, irailaren 3an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

ERMUA

» **Udako Zinema: 'Ella es el partido' pelikula eskainiko dabe**, abuztuaren 26an, 22:00etan, Orbe Kardinala plazan.



IKASTAROAK

BERRIZ

» **Igeriketa ikastaroak, cycling eta beste hainbat jarduera (aerobica, batuka, mantenu gimnasia, pilatesa...)**, irailaren 21ean hasita. Izena emoteko epea zabalik dago, irailaren 14a bitartean. Horretarako Berrizburu kiroldegira jo leiteke. Lekuen zotz egitea irailaren 16an.



DURANGO

» **Udal euskaltegia**. Irailaren 1etik 18a bitartean egongo da aurrematrikulatzeko aukera. Horretarako udal euskaltegira jo leiteke.

LEHIAKETA

ABADIÑO

» **2010. urteko Argazki Lehiaketa**. Abadiño udalerrria eta bere ingurua gai hartuta aurkeztu leikez lanak www.abadiano.org webgunean erregistratutako 16 urtetik gorako erabiltzaile orok. Gehienez lau argazki helerazo behar dira, webgunearen bitartez, irailaren 30a bitartean. Urriaren 1ean argitaratuko dira aukeraturako lanak, eta 31



Abuztuaren 30ean, 13:00ean

HERRI-KIROL ERAKUSTALDIA MALLABIAN

Jai giroa izango da nagusi datorren asteburu honetan Mallabiko Zengotita auzoan. Hainbat ekitaldiz hornitutako egitaraua osatu dabe San Roman Nonatoaren omenez ospatuko ditueen jaiotarako; tar tean, herri kirol erakustaldia. Lapazaran gonbidatu dabe Zengotitara. Baita Zelai II.a eta Zelai III.a be. Bertaratu-ko diren mallabitar zein bisitarien ikusmina asetzeko ardura izango dabe hiru kirolari handiok. Bolo txapelketak be ez dau hutsik egingo zapatuan, eta gaueko jai giroa, barriz, trikiti doinuek berotuko dabe Zengotita auzoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Año Uno
Zuzendaria: Harold Ramis
barikua 28: 18:00 / 20:30
zapateria 29:
17:00 / 19:30 / 22:30
domeka 30:
17:00 / 20:00
astelehena
31: 18:00 / 20:30
martitena 1:
20:00



BOTIKAK

Barikua, 28
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Zapatua, 29
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murua Torre 2C - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenciaga / Campillo / San Roma (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)*
Domeka, 30
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 31
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Martitena, 1
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguaztena, 2
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguena, 3
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Abxondo)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango (Landako).....94 621 51 30
Durango (Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

22° BARIKUA
Eguna goibela eta umela espero dogu, eta tenperaturak be beheara egingo dau. Zerua estalita agertuko da eta tarteka zertxobait bustiko dau. Iparmendebaldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura jaitsi egingo da.
23° ZAPATUA
Egonkortasuna areagotu egingo da. Goizaldean hodei oraindik, baina egunak aurrera egin ahala txukuntzera egingo dau. Hodeiak desegiten joango dira eta eguzkia gailenduko da. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da.
28° DOMEKA
33° ASTELEHENA
32° MARTITZENA

OSASUN GIDA

AKUPUNTURA



MINKENDU

AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

LOGOPEDIA



- Psikologia
- Psikoterapia
- Bach loreak
- Logopedia
- Fisioterapia

ume eta helduentzako


Txibitena, 9A - behea
48200 DURANGO

tf. 94 681 21 00

mug.: 669 612 362

ahozabal_zentrua@yahoo.es

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÄ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51

FISIOTERAPIA



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

KIROLAK >



Cafés Baqué txirrindulari taldeak afizionatu eta profesional mailen arteko lotura izatea du helburu nagusi. Txirrindulari gazteei gora iristeko bidea erraztu nahi die. Taldea sortu zene-tik, 80 txirrindulari inguruk eman du Durangoko taldetik profesionaletarako urratsa. Zerrenda luze horri Dani Domínguez gehitu behar zaio orain. Cafés Baquéen estreina-ko denboraldia zuen granadarra, Ukraniako ISD-Sport Donetsk talde profesionalako txirrindularia da abuztuaz geroztik.

Domínguezek 24 urte ditu eta Cafés Baquéen eman dituen hileetan lan txukuna egin du. Ruben Gorospe taldeko zuzendaria Bizkaiko Biran egindako lana azpimarratzen du: "Indartsu ibili zen, eta azken etapan bosgarren

Lotura lana, beste behin

egin zuen. Lehen hamarretan ere sartu zen beste behin. Lan ona egin du. Gero, gorako saltoa emateko, zortea ere izan behar da, jakina".

Lehen garaipenaren bila

Durangoko taldea denboraldiko lehen garaipena lortu ezinda dabil, hala ere. Mañarian domekan jokatu zen XXII. Andra Mari Sarian Igor Romero sailkatu zen ondoen, hamargarren postuan. 23 urteko mutrikurak helmugara iritsiko zen ihesaldian sartzea lortu zuen, baina Caja Rural eta Bidelan-Kirolgi taldeko txirrindulariz inguratuta, ezin izan zuen gehiagorik egin.

Bestalde, azpimarratzekoa da Carlos Juez Euskaldun Sarian egiten ari den lana. Dohai nagusi

Dani Domínguez Baqué utzi eta Ukraniara joan da abuztuan

moduan erregularitasuna duela, hirugarren postuan dago Fabrizio Ferrari eta Mikel Filgueiraren atzetik. Bera da lehen bost tokietan Caja Rural taldearen hegemonia hausten duen< bakarra.

Beste hainbeste esan daiteke Bizkaia-Durango taldeko Cristina Alcaldegatik ere. Bigarren dago Euskaldun Sarian, Ane Santesteban liderrarengandik puntu bira. ■ J.D.

24 Supermotard Lehiaketa Astolan

Irailaren 13an hirugarren aldia beteko duen Supermotard Lehiaketa Astolara tokialdatu dute aurten. Txapelketa ofizialetik kanpora hainbat erakustaldi egongo da.

25 Axier Intxaurrenari elkarrizketa

Durangon bizi den berriztarrak Rikardo Txintxurretaren tokia hartu du Kulturean. Fitxaketa asko egin dituen taldeari oreka bueltatzea izango du helburu nagusi.

Martínez eta Jaio, nor baino nor arinago

Irailaren 13an III. Supermotard Txapelketa jokatu da Astolan; nobedadeetako bat Aitor Martínez eta Txus Jaioren desafioa da



Aitor Martínez supermotard gidari abadiñarra da lehiaketako interesguneetako bat.

Nobedadez beteta datorkigu irailaren 13an Asier Martinezen orimenez ospatuko den III. Supermotard Lehiaketa. Aurten lehenengoz, Matienatik Astolako industriagunera tokialdatu dute zirkuitua. Antolatzaileen esanetan Udalak kexak jaso izan ditu egun osoz aparkalekua okupatuta edukitzeagatik, eta horregatik izan dute lekuz aldatu beharra.

Aldaketak ez dio txapelketaren mailari erasango. Alderantziz, zirkuitu ikusgarriagoa eratuko dute, mota guztietako bihurtu ekin. Txapelketa supermoto, scooter eta quadetan korrituko da, eta Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da.

Matienatik Astolako industriagunera tokialdatu dute zirkuitua, lehenengoz

Musika emanaldiak ez ezik, denetarik erakustaldiak egongo dira egun osoan zehar

Txapelketaz kanpora hainbat ekitaldi daude, eta denetan berezian Txus Jaio auto gidari marinarra eta Aitor Martínez motor gidari abadiñarra aurrez aurre jarriko ditu. Kontrako noranzkoan irtengo dira elkarri trabarik ez egiteko, eta oraindik zehaztuko gabeko hainbat itzuli emango dituzte, nor arinago helduko. "Proba horrek kuriositatea eta ikusmina eragingo duela espero dugu", dio Martínezek.

Horrez gainera, egun osoan zehar motorren kontzentrazioa egongo da. Azkenik, lasterketen ondoren, motorren inguruko jai handiari musika jaialdi batek emango dio amaiera. ■ J.D.

Gazteen txirrindulari lasterketa Apatan zehar

Erlojuz kontra eta binaka ariko dira gazte eta kadete mailakoak, San Antolin egunean

Bigarren urteko kadeteen eta lehen mailako gazteen arteko harremana sendotu guran, proba kuriozosa antolatu du Bizkaiko Txirrindulari Federakundeak eguaztenean, San Antolin egunean. Apatan hasi eta amaituko den bederatzita kilometroko erloju-

pekoan, maila bakoitzeko txirrindulari banak osatutako 40 bikote inguru ibiliko dira lehian, 16:00etan hasita.

Horrela, datorren urtean maila berean egongo diren txirrindulari gazteek elkar ezagutzeko eta batzuek besteen ezauga-

riari ikasteko aukera izango dute. Sistema honekin maila batetik bestera saltoa erraztu nahi diete txirrindulariei, aurretik lehen kontaktu bat izan dezaten.

Bikoteak Apatan irten eta Martzaatik Axpera igoko dira. Handik Arrazolara jaitsi eta Santiagorako bidea hartuko dute.

Maila batetik besterako saltoa erraztea du helburu lasterketa honek

Adituarentxokoa

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



2009/10 denboraldi ataria

Badator denboraldi barria. Aurrendenboraldian murgilduta dabil, dagoeneko, talde guztiak. Goazen nobedade guztiak aztertzeraz.

ACB ligatik hasita, barri askogaz datorren Bizkaia Bilbao Basket daukagu. Kopa Txapelketa BECen jokatu dela-eta, plantilla ikusgarria osatu dabe benetan: Javi Rodríguez antolatzailea, Chris Warren eta Alex Munbrú hegalekoak eta Jerome Moiso pivota. Fitxaketa horreek ilusino handia ekarri dabe, eta ia aurreikusten den urte oparoa betetzen den, ezin dogu-eta ahaztu Eurocup Txapelketan be jokatu dabela.

Bestalde, gure eskualdean bi gertakari nagusik markatuko dabe denboraldia: Tabirako eta Zornotza Kluben 50. urteurrenek.

Durangerren bi talde nagusietan aldaketa gitxi dago. Akaso gizonen entrenatzailea Tomás de Castro izango dela, honeentzat A-1ean sartzea eta hortik aurrera igoera faserako borrokan egotea izango da helburua. Andrek, oster, lesioek errespetatzen badabe igoera fasea jokatzeko aukera emoten daben lehen bi postuengaitik borrokan ibiltzea izango dabe helburua.

Zornotzan, barriz, aldaketa nagusia entrenatzailea da. Aurten, ezaguna dozen norbait izango da: ni neu. Helburua A-1ean sartzea, eta, fitxaketak lortzen badoguz, igoera faserako borrokan egotea izango da. Ilusino eta gogoz beterik hartzen dodan erronka da, dudarik barik.

Zorte on!

Berriz prest du belar artifizialeko zelai berria

Berrizburuko zelaia prest dago ligari ekiteko. Abuztuan zehar, hamabi urteren ondoren, nahiko hondatuta zegoen belar artifiziala aldatu egin diote. Orain itxura dotorea eta eraberritua ageri du Berrizko futbol-zelaiak. Zoruak kautxozko oinarria dauka, eta horrek jokalarien ibiliak malgutuko ditu, lesio arriskua txikituz.

Udalak 144.400 euro erabili ditu lan horiek burutzeko. Berrizko kluba gustura azaldu da zelai barriagaz, izan ere, aspaldiko eskakizuna errealitate eginda probatu ahal izan dute. Azken denboraldietan, klubak lesionatu bat baino gehiago izan du zoru irregularren ondorioz. Orain, zelaia ez da aitzakia izango.



Abuztuan zehar aldatu dute belar artifiziala.

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

Betikoak flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

AZKARGI GARBIKETAK
Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Krisializatzaileak eta abar
Goleta, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 681 43 85

“Gazteen eta etxeko jokalarien aldeko apustua egin dogu”



Axier Intxaurreagak Eibar, Las Palmas, Malaga, Elx eta Algeciraseko taldeetan jokatu dau futboleant, besteak beste.

Axier Intxaurre (41 urte, Berriz) da Durangoko Kulturalaren entrenatzaile barria. Futbolari legez ibilbide luzea eta oparoa izan dau. Orain hiru urte hasi zen entrenatzaile lanean, Castillo taldeagaz, eta Bigarren B Mailarako igoera fasea jokatu eban. Errespetua oinarri daukala, ilusinoa bueltatu gura deitso Durangoko klubari.

Aurrendenboraldia aztertuz, zelan baloratuko zeunke?

Jokalariak gogor entrenatzen eta ilusino handiz ikusi ditut. Aurrendenboraldiak sentsazio onak itzi deustaz.

Rikardo Txintxurreta kirol zuzendari legez ibiliko da aurretan. Zelakoa da bion arteko hartu-emona?

Oso ona. Berak deitu eustan proiektu barri horretarako. Nik ez neban Euskal Herriko Hirugarren Maila ezagutzen, ezta jokalariek be. Txintxurretak biak ezagutzen ditu, eta egoera barrira moldatzen lagundu deust.

Zortzi fitxaketa egin dozuez hainbat postutarako. Bion oniritziag egindakoak izan dira guztiak?

Bai. Nahiz eta nik jokalariek ez ezagutu, Txintxurretak emondako informazioagaz eta futbol arloko hainbat jenderen eritziak aintzat hartuta egin doguz fitxaketak. Neuk emon deustat bakotxari azkeneko baietza.

Zer nortasun edukiko dau aurtengo Kulturalak?

Fitxaketek erakusten dabe zer bide jorratzen gabilzen. Alde batetik, Durangoko eta Durangaldeko jokalariek ekartzen saiatu gara. Bestetik, gazteen aldeko apustua egin dogu. Horreek dira erabilitako erizpide biak: jokalariek gazteak eta ahal dela etxekoak izan daitezela.

Jokamoldeari jagokonez, zer eredu jarraituko dozu?

Garrantzitsuena jokalariek kontzeptuak argi izatea da, uneoro zer egin behar daben jakitea. Jokalariek egiten dabenaz disfrutatatu daien saiatuko gara. Lana gustura egiten bada, giro onean, hobekuntzak arinago datoz.

“Fitxaketak Txintxurreta eta bion artean erabaki doguz. Nik izan dot azkeneko berba”

Jokalariek gazteen fitxaketak zaleen aldetik pazientzia eskatzen dau?

Futboleant ez dago pazientziarik, hori garbi daukagu. Gazteak izango dira, baina Hirugarren Mailan jokatzeko maila daukie. Gazteen abantaila hobekuntzarako tarte handia daukiela da. Hori lantzen saiatu behar dogu.

Azken urteak ez dira itzaroten genduen beste onak izan. Zaleen ilusinoa berreskuratzea be badozue helburu?

Bai, jakina. Martxan ipinitako proiektuan konfidantza osoa daukagu. Fruituak emoten laster hasiko den esperantza daukagu, holan zaleak zelaira gustura eta disfrutatuzera etorri daitezela.

Liga etzi hasiko dozue, Santurtziren zelaian.

Liga hasteko desiatzen gagoz. Aurrendenboraldian hainbat partidu jokatu dogu, baina ez da bardin. Kompetizinoa beste kontu bat da.

Zer dakizue Santurtziri buruz?

